



ALZHEIMERRA: ZAHARTZAROKO GAIXOTASUNA

Arg.: M. Albisu


SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK
Euskadiko Kutxa Taldekoa

10 URTE BEASAINEN
ETA OSPATZEKO MAIATZA ETA
EKAINEAN GUREKIN KOTXE, ETXE EDO
BIZITZA ASEGURUA EGITEN DUENARI
DESKONTU BAT ESKAINTZEN DIOGU:

%10

Beren kontura lan egiten dutenentzat.

Kontu Profesionala.

Eskerrak norbait erabitu den beren kontura lan egiten dutenentzat.

Euskadiko Kutxa erantzun ausarta eta eraginkorra eman die beren kontura lan egiten duten profesionalak. Zerbitzu oso eta berezi baten bidez. Kontu Profesionala. Finantza Entitate bati eskatuko zenitokeen guztiarekin. Eta aholkularitza fiskal eta finantzarioan aditua den talde espezializatu baten laguntzarekin.

- %5,5¹ erazunko UTB kontu korrontean.
- Zorpekoek %15eko interes nominalari (%15,87ko UTB).
- Aholkularitza fiskala doan, telefono zerbitzu baten bidez: 8.00etatik 22.00etara 901-333 444an.
- Gaikotasunagatik Itaja Asegunua², merkatuko antzekoak baino %25eraino merkeago.
- Kreditu-linea baldintza berezietan.

Eta gainera beste abantaila batzuk:

Autonomoentako Ordainagria helbideratzeagatik:
• Visa Clasic Txartela doan Kontu Profesionalaren titulazaren bitartean edo Visa Oro lehen urtean doan.

Aurkikuspeneren bat irekitzearentzat:
• 5.000 pezeta lehen ekarpena Euskadiko Kutxaren konturari.
• 3.000.000 pezeta lehen ekarpena Asegunua², kreditu gabe.

Informa zaituz Euskadiko Kutxaren Sukurtsalean, goizez nahiz arratsaldean. Edo 901-333 444an, gureko 10ak arte.

¹ Hainbat kasutan egonkortu gabe erabaki daiteke. Kontuaren antzerkiaz erabakia. 1.000.000 pezeta baino gutxiago: %1,5. 500.000 pezeta baino gutxiago: %2,5. 1.000.000 pezeta baino gehiago: %3,5. 5.000.000 pezeta baino gehiago: %5,5.

² Asegunua S.A. Aseguruetarako zerbitzuak.

³ Euskadiko Kutxa Taldearen Lagun Arria S.A. Aseguruetarako zerbitzuak.

Taldea erabakitzen duen kontrolatzailearen konpromisoa da baina.

Proiektu hau 1996ko martxoaren 31ra arte irauten du.



NEC telefono mugikorra doan mallegu edo leasinga formulatzea gatik.



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**GOIERRITARRA
HAMABOSTEKARIA**

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea

Dorre-etxea, 1

(Postetxe gainean)

124 posta-kutxa

20240 Ordizia

Tfnoa: 88 96 12

Faxa: 88 27 19

Zuzendaria:

Loinaz Agirre

Maketazioa:

Mikel Albisu

Publizitatea:

Josune Agirre

Erredakzio Batzordea:

Dionisio Amundarain, Jon Arano, Mikel Albisu, Joseba Telleria, Ane Martin, Loinaz Agirre eta Estitxu Imaz.

Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:

Aitor Calvillo, Joseba Telleria, Jon Aizpurua, Rufino Iraola, Izaskun Salazar, Xabier Urteaga, Joxe Antonio Lasa, Antonio Berasategi, Maider Azurmendi, Amaia Mujika, Gabino Murua, Edurne Albizu eta Aitziber Murua.

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA.

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 5.700 ale.

ISSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

HAMABOSTALDIAN NABARMEN



Natur gidari eta Bibliotekonomia ikastaroak

Goierrri mailan kultura dinamizatu beharra ikusita sortu zen Kulturkide. Kultura zabalkundea, hitzaldi eta erakusketa bidez eta gai jakin zenbaiti buruzko ikastaro eta ihardunaldiak prestatzea dira Kulturkideren momentuko asmoak. Liburu aurkezpenak hortxe ari dira, eta orain, bi ikastarorekin datorkigu: Natur gidari eta Bibliotekonomia ikastaroak. Ikuspegi praktikoa batekin antolatua daude.

◆ **Natur gidari** ikastaroa maiatzaren 31tik ekainaren 29ra bitartean emango da. Ostiraletan 6.30etatik 9etara eta larunbatetan 9etatik 1.30etara. 32 eskola-ordu izango ditu. Ikastaroa amaitzean nahi duten ikasleei bere gidari-proiektua burutzen lagunduko zaie. Matrikula 14.000 pezeta kostako da.

◆ **Bibliotekonomia**ri dagokiona, maiatzaren 31tik ekainaren 24ra arte luzatuko da. Ordutegia: ostiraletan 18:30etatik 21:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 13:30etara. Liburutegi inguruko gaiak aurkeztuko dira, hala nola, informazioa eta dokumentazioa eta nola ez gairik berriena: informatika, kultura eta informazioa gordetzeko eta transmititzeko oinarria eta bitartekari aparta baita. Ikastaro hau egin ondoren, 4 lagunek, Lazkao Beneditarren liburutegian praktikak egiteko aukera izango dute. Matrikula 2.000 pezetakoa da.

Izenemateak eta informazio zehatzagoa Kulturkideren bulegoan, Senpere Merkatal Guneako 1.º solairuko 32. bulegoan edo 161840 telefonoan duzue.

BOTA BERTSOA



Ekaitz Goikoetxea

Herriko festak

Doinua: Txoriak eta txoriburuak

Sorgin mariren jeitsieraz bat festa handia hasi zen, erratz gainean alai zebilen laino ta hodeiak biltzen, harrezkerotzik curi-lanbroa gure inguruan bazen, eguraldia aproposa utziz bareok irten gaitezen. (bis)

Errepikapen asteburuan ezarria dut arreta, bazter ditzagun lan, eskola ta bestelako zenbait kezka, giro onean ibil gaitezen guztiok pozez beteta, herriko festak urte osoan behin izaten dira eta. (bis)

**Eusko Jaularitza-
ko Kultura Sailak,
Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta**

GOIERRIKO UDALEK diruz lagundutako aldizkaria



GOIERRITARRA doan

jaso nahi dut etxean

Izen deiturak

Helbidea

Herria

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali

Eraso faxista

Eztira gutxi izan, gure ikurriñak bere historiaren 102 urtetan jasan izan dituen irain, iseka eta erasoak, eta hoietako bat gehiago dauka-gu oraingoan ere eskuarte.

Aberri Egunaren inguruan Idiazabalgo Herri Batasunak eginiko ikurriñaren aldeko ekimenen artean, 7 metro zabaleran eta 6 luzean zitu- en ikurriña erraldoi bat egin, eta berau herriko pun- turik ikuskorrenean jartzea izan zen bat. Esan eta egin. Idiazabalgo saihebidetako paretan jarrita egon da. Maiatzaren 6ko arratsaldean ordea, guztion haserretako, apurtua eta kendua izan zen.

Orain gutxi esaten genuen bezala, ikurriña da euskal- dun guztiok batzen gaituen sinboloa, euskaldun guztiok elkartzen gaituen gunea. Euskaldun guztiok esaten dugunean, Gipuzkoa, Biz- kaia, Nafarroa, Araba, La- purdi eta Zuberoa guztion aipamena egiten dugu.

Baina badaude, euskaldu- nak, Araba, Bizkaia eta Gi- puzkoarrak bakarrik garea esaten dutenak! Baina ba- daude, Nafarrak euskaldu- nak eztiela esaten dutenak! Baina badaude, guztiok es- painolak garea esaten dute- nak! Baina badaude, Lapur- di, Nafarroaren zati bat (Be- he Nafarroa) eta Zuberoa, Frantzia dela esaten dute- nak! Baina badaude Euskal Herria nazio bezala ez dela esistitzen esaten dutenak!... eta hauek, beraien buruari demokrata izena emanaz, Euskal Herriaren batasuna eta askatasuna gorroto dute, euskara gorroto dute, eta noski, ikurriña gorroto dute!

Euskal Herriak errepre- siorik ez duela jasaten, eta demokrazian gaudela esaten duten horiek zer ikusia ba- daukate oraingoan ere, baina

ohikoa duten bezala, beste alde batetara begiratu du- te, euskaldunen aurkako ho- rrelako ekintzak egiten di- tuztenei babesa eta sustape- na emanaz.

Orain urte batzuk, Fran- co-ren garaian ikurriña ken- tzeak zuen larritasun bera edo handiagoa dauka hemen gertatu denak. Oinordeko bi- kainen bilatu zituen diktado- re kaudilloak. Demokrazian gaudela erakutsi nahi badi- gute ere, gure herriaren nor- tasuna eta izatea suntsitzeko bitarteko guztiak erabiltzen ditu etsaiak: tiroka eraso be- har duela iruditzen zaionean tiroka erasotzen du, eta he- men gertatua bezalako beste zenbait bitarteko erabili be- har dituen ere, erabili egiten ditu.

Baina nahiz eta herri txi- kia garen, ez gaude prest errepresioaren aurrean amo- re emateko. Azkenerarte de- fendatuko dugu gure herria- ren izatea eta askatasuna. Ikurriña bat kentzen badigu- te, izango dira gehiago. En- bor berdinetik sortuko dira besteak.

Idiazabalgo Herri Batasuna

Zaldibiko Eliz batzorde- ari: noiz arte?

Idatzitxo hau kaleratzerako- an ez nau animatzen iskanbi- la edo tekela sortzeak urtee- tan kezkatzen naun arazo ho- nen inguruan. Bai ordea, ne- re haserre bizia azaldu nere demandaren aurrean, bai Zaldibiako Eliz batzordeak, ala momentuko apaizek izan duten jarreragatik.

Inork gaur arte, ez dit esan: "Matias oker zabiltz" edo "gauzak ez dira horre- la"... Hori bai, esan didate: "hitzegingo degu", "zerbait egingo degu"... eta gaur arte. Sekulan ez zen nere burutik pasatu auzi hau plazaratu be- harko nuenik, baina ez di- dazue beste irtenbiderik utzi.

Zintzo jokatu dudalakoan nago, behar zen lekuan ara- zoa mahai gainean jarriaz. Baina, zoritxarrez ez dut inongo konponbiderik aurki- tu.

Gogoratuko dizuet nere demanda zertan datzan: 1940. urtean "Gaztineri" be- zala ezagutzen den parajea- ren erabilpena eman zidaten, Zaldibiako elizak, eliz-gizon nintzen. Handik bi urtetar- a, jabe partikular batek hiru mugarri kendu eta pinu ba- tzuk landatu zituen. Parro- kiari jakinarazi nion eta pi- nuak kendu zituen.

1986an, hain zuzen ere apirilaren 14an, idatzi bat bi- dali nion Zaldibiako Eliz batzordeko lehendakariari. Ez nuen inongo erantzunik jaso. Hortantxe egon zen asuntua eta 1993ko martxoar- en 15ean bidea itxita aurki- tu nuen berriro. Eliz ba- tzordearengana jo nuen eta apaiz- ak esan zidan: "ikusiko dia- gu asuntua" eta zerbait egin- go zutela aginduz utzi nindu- ten gaur arte. Ondoren, Obispadura jo nuen ea goiko instantzietatik ezer egiten zen. Hortik ere ez zen eran- tzunik jaso.

Norbaitek esan daiteke te- rreno hori ezer gutxi dela, baina ia 500 m. dira. Eta gauza horrela luzatzen eta luzatzen... Gauzak horrela, nik galdetzen dut: Parroki batek ez al du bere hondarea defenditu behar? Eliz ba- tzordekoek gora-behera han- diak izan dituzte lindek dire- la eta ez direla. Nola liteke apaiz eta eliz-gizonek berdin jokatzeko?

Oraingoan ere, zuen erantzunaren zai geratzen naiz. Merezi dudala uste dut.

Matias Mendizabal (Zaldibia)

Erantzunik jaso gabe geratutako eskutitza

Gotzain Jauna; labur konta- tuko diot zerk bultzatu nauen letra hauek idatzera.

Parroki Batzordeari joan zen apirilaren 5ean eginiko ida- tzian, Jose Antonio Pagola jaunak badu kopia, nioen be- zala, gure herriko Eleizan Korpus Egunean, konsagratu gabeko formarekin egin zen prozesioa. Eta prozesioa ba- karrik ez, baizik eta horrela eman baitzigun 1987-88-89 eta 1994ko meza nagusieta- ko bedeinkazioak ere 1995eko Korpus bezperan beste horrenbeste egin zuen lehenengo jauna hartu zuten neska-mutilekin.

Elizkizuna amaitzean, Emeterio jaunak sakristiara eramane zuen forma disimulu guztiarekin. Eta hurrengo egunean Antonio apaiz jau- nak konsagratu eta bedeinkazio ondoren Sagraiora eramane zuen.

Emeterio jaunak, Bartze- lonan eginiko aitorpen ba- tzueta azaltzen zuen An- tzuolan egon zenean, hainbat lan egin zuela eliztarrekin, baina Zaldibin ez zen horre- lakorik gertatu.

Beste arazo bat ere ari ga- ra jasaten aspaldiko urteetan, konponbiderik eman nahi ez eta. Madina jauna jakinen gainean dago gai honetaz ere. Azalduko zela esan zuen arren, orain arte ez dut eran- tzunik jaso. Hori bai, nik arrazoi nuela esan bai, baina erretore jaunak agintzen zue- la esanda bukatu zuen.

Gotzai jauna, nire ustetan ezin da gehiago luzatu auzi hau.

Besterik gabe, bi asunto ohauek garbitu eta aklatatu- ko dituelakoan, eta nire atre- bimendua barkatuko duela- koan, agurtzen naiz berorren arretea eskertuz.

Gotzai jauna, ez dio erantzunik eman nire ida- tzia baina bakea nahi badu, ken ditzala bidean legez kan- po aldatu zituen arbolak. Horrela ikusiko dugu nolako bakezale den, berorren bo- rondatea bakea egiteko.

Matias Mendizabal (Zaldibia)

TXANDAKA

Juan Telleria



Omen egin diote Juan Telleriari Zegamako jaioterrian. "Cara al sol" eta beste hainbat eresiren egile, haren politika ikuspedia alboan utzi eta musikagile on eta ospetsua izan zelako omen diote.

Beharbada liburuetan eta errepertorioetan jasota egongo dira Telleriaren lanak; nik neuk ez dut horren berri. Seguru ez dakit, baina apostu egingo nuke gaurko zegamar gehienek ere ez dutela orain arte Telleriaren beste doinuaren aditzerarik izan eta Zegamako etxeetako diskoen artean beraren entzungairik ezingo dela aurkitu. Orduan, zergatik lehen pertsonaia madarikatua zena orain herriaren aberasgarri bihurtu da?

Beste hitz batzuetan esateko, liburuetan --edo diskoetan-- letra handian idatzita ageri diren guztiak al dira ohoragarri? Liburuetan badaude, honako edo harako histori paper bete duelako... sentimendu bereziren bat eragin dutelako izango da. Horrek ez dakar, berez, ereduzko izatea.

Beldurra ematen didate omenaldiek. Omen duaren ustezko handitasuna baino, omengileen handi nahia uzten baitute agerian askotan. Omen gutxiago nahi nituzke; kritikak eta, batez ere, autokritikak gehiago aberastuko gaituztelako.

Antonio Berasategi

Zer iruditzen zaizu Goierrin turismoa bultzatzea?



Mila Begiristain

41 urte, jostuna

Segurakoa


Ona izan liteke jendea inguratzea. Gauza asko daude Goierrin erakusteko modukoak. Nik uste gainera arrakasta handia izaten ari direla, hemen Seguran behintzat.

Manuel Huerta

75 urte, erretiratu

Segurakoa

Ondo. Turismoarekin jendea etorri eta herria altxatuko litzateke. Gehiena tabernek irabaziko dute baina... Komunikabideei esker Segura gero eta gehiago ezagutzen da kanpoan.



Jose Luis Etxeberria

59 urte, mekanikoa

segurarra

Nik uste denoi gustatzen zaigula. Bentajak ekarriko ditu turismoak, kalterik ez. Orain asko hasi da Goierri kanpoan ezagutzen.

"Eguneroko ogia,
ogi bereziak eta
pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35	Elosegi, 14	Sta. Maria, 19
☎ 88 77 58	☎ 88 72 79	☎ 16 00 44
BEASAIN	LAZKAO	ORDIZIA



Sagardotegia

aulia

Aulia-enea

☎ 80 60 66

LEGORRETA



✓ Ileapaindegia

✓ Edergintza

✓ Solariuma

itxura aldaketa

Nafarroa Etorbidea, 37

☎ 88 02 97

BEASAIN

UNTXUNDEI
garajea



OSINALDE
karrozategia

☎ 88 28 21 - 16 07 06
ORMAIZTEGI

ZINEA

ORDIZIA:

'Heat' Ostirala 24:
22:15; larunbata 25: 19 -
22:15; igandea 26: - 19 -
22:15; astelehena 27:
19:30.

El ladrón de Bagdad'
Igandea 26: 16:45.



'Pena de muerte' Osti-
rala 31: 22:15; larunbata
1: 19:30 - 22:15; igandea
2: - 19:30 - 22:15; astele-
hena 3: 19:30.

'Niño rico' Igandea 2:
16:45.

ANTZERKIA

BEASAIN:

Maiatzak 31, Udal Ant-
zerki tailerrak William
Shakespeareren 'Uderdi
gau bateko ametsa' lana,
Usurbe Antzokian,
20:30ean. Sarrera 300 pe-
zeta.

ORDIZIA:

Maiatzak 24, Angel y
Mariano taldeak, 'Cancio-
nes animadas' kafe-ant-
zerki-kontzertua eskainiko
du, 22:30ean, Barrenan.
Sarrera 400 pezeta.

Ekainak 1, Czyewski
Canal jazz bikotearen ka-
fe-antzerkia, 22:30ean,
Barrenan. Sarrera 400 pe-
zeta.

BERTSOAK

GABIRIA:

Maiatzak 24, A. Sarriegi,
A. Agirre eta J. Uranga,
Osinalden, 20:30ean.

SEGURA:

Maiatzak 24, B. Gorosti-
di, E. Goikoetxea eta N.
Elustondo, Txoritegi el-
kartean, 20:30ean.

MUSIKA

BEASAIN:

Maiatzak 24, Choco-
crispis, Afraid to speak in
public eta psilicon flesh,
Txoznetan, 22:30ean.

Maiatzak 26, Madagas-
karreko musika etnikoa
'Rakoto'rekin, Bideluze
plazan, 19:30ean.

HITZALDIAK

LAZKAO:

Maiatzak 29, 'Irrati
modelo bat euskalduna' ri
buruzko hitzaldia, Herri
Irratiko zuzendari orde-
den Txema Auzmendi or-
diziarren eskutik. Maiz-
piden, gaueko 9.00etan.

ZALDIBIA

Hitzaldi eztabaida

Maiatzak 24,
20:00etan Zine Aretoan

Gaia: 'Hirugarren
gunea'

Hizlariak: Joxerra
Gartzia, Juan Mari Jua-
risti eta Patxi Zabaleta.

Antolatzailea: Zal-
dibiko Elkarri

BESTELAKOAK

ZALDIBIA

Maiatzak 28, Arrate
Leunda ipuin kontalaria,
Liburutegian, 17:30ean.

IKASTAROAK

IBEASAIN:

**Maiatzaren 31tik ekai-
naren 24ra bitartean**,
'Natur Gidariak' eta 'Bi-
bliotekonomia' ikastaro-
ak. Ikus 3. orria.



GOITGI OKINDEGIA

Ogigintzan onenak!

Etxezarreta z/g
ORDIZIA ☎ 160501

- ◆ Egurrezko labeen
egindako ogi gozoa
- ◆ Opil finak
- ◆ Eguneroko ogia
- ◆ Ogi bereziak
- ◆ Ogi artisauak

Barandiaran Taldea,2
ZALDIBIA ☎ 880737

GESTORIA Biok

ASEGUROAK

- ✱ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✱ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta
kotxe aseguruak

☎ 88 44 00 - 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA



MAIZPIDE euskaltegia

XXII. UDAKO EUSKAL IKASTAROAK

Maila guztiak euskalduntzen, alfabetatzen, alfabetatze teknika eta sakontzen

- **UZTAILEKO IKASTAROA:** Uztailaren 1etik 19ra.
- **ABUZTUKO IKASTAROA:** Uztailaren 29etik abuztuaren 23ra.
- **IRAILEKO IKASTAROA:** Irailaren 2tik 27ra.

MATRIKULA MAIATZAREN 13TIK AURRERA.

HABEren dirulaguntzaz. • DEITU ETA EMAN IZENA

Tel.: 88 92 31 - 88 92 32

LAZKAO

ERAKUSKETAK



ZALDIBIA:

Maiatzaren 26ra bitartean, Marronen Lurra argazki bilduma ikusgai,

MENDI IRTEERAK

Kultur Etxean.

Beasaingo erretiratuak:

Ekainak 1, Beasain (Ugartemendi)- Ojarbi (katea) - Beasain.

Ordiziako mendizaleak:

Maiatzak 29, Tolosako 14 Orduak martxa.

Ekainak 1, Petretxe-ma.

Idiazabalgo mendizaleak:

Maiatzak 26, Bardeak.



V. LAZKAO TXIKI BERTSOPAPER LEHIAKETA

martxan da. 3 maila bereiziko dira: 13 urte bitartekoak (6-8 bertso), 14tik 18rakoak (8-12 bertso), eta 18tik gorakoak (8-12 bertso). Gaia, neurria eta doinua librea izango da. Nahi adina bertso sorta bidali daitezke. Bertsoak uztailearen 1 aurretik bidali beharko dira Ordizian Argi Berri Elkarteak duen egoitzara (Gipuzkoa kalea, 15). Orijinala eta 4 kopia bialdu behar dira. Sari banaketa irailaren 15ean egingo da Ordizian bertan. Sariak: gaztetxoe-tan, 20.000, 10.000 eta 5.000 pezetakoak; gaztee-tan, 30.000, 20.000 eta 10.000 pezetakoak; hel-duetan, 50.000, 40.000 eta 30.000koak. Informazio gehiago, 885228-889053 telefonoetan duzue.

DEBALDEKO IRAGARKIAK

Salerosketak:

☐ Renault 18, diesela salgai. Zerrail zentralizatua, elebaluna elektrikoak, direkzio lagundua eta extrak. 80 19 93.

☐ Kanping karroa salgai. Arantxa. 18 04 06.

Etxebizitzak:

☐ Pisua salgai Ordizian. Kasko historikoan dago kokatuta, Kale Nagusira eta Goen kalera ematen du. Erreformatuta. 88 06 34

☐ Beasainen pisua salgai. Esteban Lasa kalean. Deitu: 80 12 82 edo 88 16 20 telefonoetara.

Bestelakoak:

☐ Martxoaren 8an eraztuna galdu eta oraindik arras-torik gabe bazaude, deitu 16 02 82 telefonora.

☐ Beasainen belarritako bat galdu zen maiatzaren 4an. Urrezkoa eta esmeralda batekin. 76 33 26. Arratsalde edo gauz deitu.



GOARDIAKO FARMAZIAK

24-25-26: Azpilikueta.

27: Jauregi.

28: Laurnaga.

29: Cuesta.

30: Arriola.

31: Urbizu.

Ekainak 1-2: Jauregi.

3: Atorrasagasti.

4: Azpilikueta.

5: Jauregi.

6: Laurnaga.

7: Cuesta.



MUJIK



BEASAIN

☎ 88 74 00

IKASTAK AKADEMIA

- ✓ Maila eta arlo guztiak
- ✓ Laguntza pertsonalizatua
- ✓ Kalitatea eta esperientzia

☎ 16 01 20

Joan Iturrlalde, 5

BEASAIN

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 8893 90 BEASAIN

URBITARTE

sagardotegia



☎ 18 01 19

Ergoiena Auzoa
ATAUN



Rufino Iraola Garmendia

“Erlijio, arraza, ideologia edo herriari buruzko kontzepzio eta metodo diferenteak defendatzea aski dira, zenbaitetan, herri berekoen artean sua piztu eta elkarrekin borrokan eta bata besteari irainka ekiteko”

Milan Kunderak 6 kasualitatetarako kontatzen ditu, bere “La insoportable levedad del ser” nobelan, Tomasek (pertsonaia bat) Teresearekin (beste pertsonaia bat) topo egin ahal izateko. Era berean, kasualitate hutsa da zu jaio izana; izan ere, gutxi gorabehera, beste 2,5 milioi ere izan zuten zure ordeztzeko probabilitatea. Eta, kasualitatez, nire artikulua irakurtzen ari zara, ni ere, zu bezalaxe, estadistikaren produktu aleatorio hutsa naizela pentsatu gabe.

Bestalde, tabuak eta eufemismoak behar-beharrezkoak dira bizitzan, bestela gordinetia litzateke errealitatea. Utopia handi eta fikziorik gabe ez du oraindik gizonak bizitzen asmatu, kasualitatez heziketa horixe hartu baitu. Ez dut eza gutzen fedegabeek hildakoei egiten dizkieten omenaldiak baino absurdoagoarik, baina nork du hemen horrelakorik kuestionatzen?

Eta bizitzari zentzua emate aldera sublimatu eta idealizatzen dira gauzak; bizitzak non du, ordea, bizitzea beste zentzurik? Ez gaude munduan Norbaiten inolako plan jakinari esker. Spinozaren ustez, Jainkoak ez zuen mundua kreadu bera kreadotik kanpo geraturik. Jainkoa eta natura gauza bera zirela esan zuen. Zen guztiaren baitan Jainkoa somatzen zuen; eta, Jainkorengan, zen guztia. Spinozak hori esaterako, ordea, gizonak urte asko zeramatzen Jainkoaren eta munduaren arteko dikotomia aldarrikatzen, eta gizona mundu honetarako hezi ordeztu honi uko egin eta amets eta ilusioaren lainopera bultzatzen.

Horrela sortu ziren, mito zaharren ondorengotik, mito berriak: erlijioak. Eta bizitzari zentzua emateko, jainkoaren izenean gizona borrokan ipini dute erlijioek, bere buruarekin eta ondokoarekin, etika eta morala ere erlijioaren menpean direla. Eta erlijioaren mitoak huts

Bizitza kasualitatezko zirriborroa

egin zezakeenerako, badaezpada ere, beste mito indartsu bat asmatu zuten munduko ideologo handiek: patriotismoarena. Ordutik aurrera “pour la patrie” egingo du gizonak borroka eta, behar izanez gero, aurrean jartzen zaiona hil. Hauxe da pertsonen nozitu behar izan duten paradoxa eta aberraziorik handiena: “fatherland” edo aberria bezalako kontzeptu abstraktuen izenean elkar hiltzea.

Mitoen kulpaz suturiko gerra batean herri xehea ez da santa sekula irabazle atera, gerra irabazita ere galduan baitzik. Hori goiko jende eta diru edo kapitalaren interesa besterik ez da. Bosniako senar-emazte batzuk ikusi nituen aurrekoan telebistan. Andrea serbiarra zen eta senarra musulmana, eta erruz maite zuten elkar. Gerra absurdo horrek zer zentzu izan ote du horientzat? Mitoen gainetik harreman pertsonalak dira inportanteak, pertsonarengandik pertsonarengana. Bosniako serbiar eta musulmanak ez ote ziren biziko problema handirik gabe, harik eta norbaiti hori problema zela ote arte?

Ikusten dugunez, erlijio, arraza, ideologia edo herriari buruzko kontzepzio eta metodo diferenteak defendatzea aski dira, zenbaitetan, herri berekoen artean sua piztu eta elkarrekin borrokan eta bata besteari irainka ekiteko, konponezina nagusitu zaion matrimonioaren gisan. Harreman pertsonalak ezinezko eta martirio bihurtzen direnean, ez da posible, familiaren izenean edo herriaren izenean, elkartuta segitzea. Areago oraindik, bere harreman pertsonal konkretuetan errespetorik ikusten ez duenean eta frustraturik sentitzen ba

da, hari berdin dio jainkoa, familia, herria eta gaineratiko kontzeptu abstraktuak infernuko zuloan kiskalita ere. Zer esanik ez, borroka horretan pertsona kuttunen bat galdu baldin badu.

Descartesek hala “deskrubitu” zuenetik existitu egiten gara eta existentzia hori gozatzea eta besteei gozatzen uztea da gure helburu bakarra. Momentu tenporal eta historiko jakin batean existituko gara kasualitatez, nahiz eta bizitzan zehar, hein handian, espazioa aukera dezakegun. Dena dela, espazioak baino denborak garrantzia handiagoa du niretzat, hain zuzen ere oso motxa baita. Horregatik existentziaren kontrako atentaturik handiena denboraren laburtzea da, eta horregatik existentziak inplikatzeko duen eskubiderik sakratuena bizitzea da. Horregatik norbaiten bizitza errespetatzen ez duenak ez dio sekula santa gizarterari ezer onik aporteratuko.

Nire existentzia laburra dela esan badut, ditudan galdera eta jokabideak ere oso epe motxerakoak dira. Nik nire momentu historikoan ahal dudana guztia egingo dut, baina zergatik kezkatu behar dut hemendik mila urterako kontuekin, egungo existentzia, benetako bakarra, hipotekatzeraino? Egungo bizitzan zergatik egin behar ditut astakeriak etorkizun idealizatu bezain desegur baten izenean? Ez al digu, ba, Milan Kunderak berak esaten, behin besterik bizi ez gaitzkeelako, bizitza dela aldeztu aurretiko entsaioak gabe erreprezentatzen den antzerki-obra bakarra? Beraz, bizitza, onenean ere, zirriborro bat baino ez da. Eta zirriborroan ez da ikusten ezer definitiborik, ez dakizu asmatu duzun ala ez, baina ez dago zuzentzerik. Proiektu guztiak probisionalak dira bizitzan; bizitzea bakarrik da definitiboa, eta inoren bizitza ez dago definitiboki ebakitzetik proiektu probisionalaren izenean.

ERREZETA



Josune Urkola
*Lazkaoetxe nekazaltu-
rismo-jatetxea*
Lazkao

NARANJAZKO FLANA

Osagaiak: litro 1 esne, 6 arrautza, 6 naranjen zukua, 2 naranjen zatiak, 125 gramo azukre, kanela eta naranja azala.

Esnea egosten jarri, naranja azala eta kanelarekin. Aldez aurretik moldeetan karameloa eginda eduki.

Arrautzak irabiatu edo batitu ontzi batean azukrearekin eta naranja zukua bota. Geroago, naranja zatiak ere bai. Guztia ondo irabiatu. Esnea epeltzen utzi eta guztia nahastu. Moldeetara bota. Maria bainuan jarri, labean, 180 gradutan, ordu erdiz.

AHOLKUAK

Gaixotasun kardiobaskularrak eta arrisku faktoreak (I)



Joxe Antonio Lasa
Kardiologoa

Diagnostikoa eta tratamenduetan garapen handia eman den arren, gaixotasun kardiobaskularretan eta bereziki gaixotasun koronarioetan eta Infartu Miokardioetan, prebentzioa gero eta garrantzia handiagoa hartuz doa. Prozesu koronarioen proportzio handi bat galera daiteke, prebeni daiteke.

Gaixotasun kardiobaskularren prebentziorako interesa 70. eneko hamarkadan piztu zen. Gaixotasun mota hau gutxitu egin da, nahiz eta herrialde garatueta heriotzen kausa nagusia

bera izan.

Arterien butxadura edo obstrukzioengatik sortzen da gaixotasun kardiobaskularra. Arteriosklerosiaren bitartez barneko partan gertatzen diren alterazioengatik. Baina sakoneko arrazoirik ez da ezagutzen oraindik. Gaixotasun honen sorrera eta garapena eragiten duten arrisku faktoreak ezagutzen dira bakarrik: tentsio arterialaren igoera; odolean grasa mailaren igoera, Koleste-

rola eta Trigliceridien kausa; eta tabakoaren kontsumoa. Hauxe gain, hain nabariak ez diren beste faktore batzuk badaude, Diabetea, inaktibitate fisikoa, gizentasuna, estresa...

Ondorioz, Arteriosklerosiaren sakoneko arrazoia ezagutzen ez denez, ez dakigu tratamendu eraginkorrik ematen. Baina gaixotasunaren sorrera eta garapena atzera daiteke, haurtzarotik kontuan hartu behar diren 'prebentzio

neurrien' bidez. Arteriak butxatzen edo obstruitzen haurtzarotan edo gaztarotan hasten dela pentsatzen da. Ondoren, arrisku faktoreek garapena eragingo dute.

Arrisku faktoreei buruzko xehetasun eta aholkuak hurrengo zenbakian izango dituzu.



Haurtzarotik prebenitu behar dira gaixotasun kardiobaskularrak



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
88 87 02
BEASAIN



pintura eta gaineztadurak

Aita Urdaneta, 6
% 88 59 28 - 16 17 44 ORDIZIA



88 55 00 ORDIZIA



ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
88 17 00 - 88 17 04
BEASAIN

Urko Galarraga

Maiatzaren 14an libre gel-ditu zen Urko Galarraga preso zaldibitarra, 500 mila pezetako fidantza ordaindu ondoren. Ikus Zaldibiko kronika.

Auto erreketeta

Seguran, maiatzaren 16tik 17ra bitarteko gauean, herriko ertzain baten autoa erre zuten zenbait ezezagunek.

Mikel Otegi

Joan zen abenduaren 10ean Itsasondon ustez bi ertzain hil zituen gaztearen epaiketara atzeratu egingo da zenbait hilabetez. Uda ondorengora arte utziko dute epaiketa, akusatuaren defentsak Euskal Herriko Epaitegi Nagusian jarritako errekurso baten ondorioz. Ustez Er-tzaintzak egindako jazarpena proba bezala har dezatela eskatu zuen defentsak. Atzera bota dute errekursoa. Era honetan, juratuen legearekin epaituko den lehen kasua ez da Mikel Otegiarena izango.

Eudima

Udal Intsimituen Mankomunitatea sortu zen maiatzaren 19an. Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroako 28 herri daude bertan, tartean, Zaldibia eta Itsasondo. Euskal Herri ez militarizatura iristea dute helburu. Intsumisioa ez dela delitu aldarrikatu eta era honetan, espainiar armadarekin ez kolaboratzeko konprometua hartu dute.

Alkartasuna Lizeoa

Beasaingo Alkartasuna Lizeoko publikoaren aldeko irakasle eta guraso talde ba-



Pilen berreskuraketa kanpaina

Sasieta Mankomunitateak era guztietako pilen (ez orain artean bezala pila botoiena bakarrik) berreskuraketa kanpaina hasi berri du. Bilketa hau pilak saltzen diren dendetan egingo da eta horretarako bereziak diren edukinontzi batzuk banatuko dira denda hauetan.

Lehen hiruhilabetekoa

Urtarrila, otsaila eta martxoan Mankomunitateko biztanle bakoitzak eguneko 0,868 kilo zabor sortu du, iaz baino zertxobait gehiago.

Beirari dagokionean, iaz baino 22.336 kilo beira gehiago berreskuratu da, % 9,34ko gehikuntza suposatu duela. Paper eta kartoi berreskuraketan, lehenengo hiruhilabeteko honetan, 15.476 kilo gehiago berreskuratu da. % 4,4ko gehikuntza izan du. Plastikozko ontzi, metalezkoak eta Tetra-brikei dagokionean, iaz baino 1.000 kilo gehiago berziklatu dira. Aipatu beharra dago, ontzien berreskuraketa zerbitzua orain artean, Beasain, Ordizia, Lazkao eta Olaberrian eskaini bada ere, aurrerantzean Mankomunitateko gainerako herrietara zabaltzeko asmoa du Sasietak. Material berreskuragarrien artean, beirak jarraitzen du Sasietako herrietarrek gehien bereizten duena izaten. Lehen hiru hilabete hauetan hazkuntzarik handiena izan duena ere beira izan da.

Aurtengo lehendabiziko trapezu zaharren bilketa martxoan egin da eta 2.440 kilo jaso dira. Urte bukaerarako gutxienez beste bat egitea litzateke asmoa.

tek, errekurritu egin du kontentzioso administratiboan Azpeitiko Ikastola publikoaren eta pribatuaren aldekoek, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren bitartekaritza, lortu zuten akordioa. Hori dela eta, Ikastola berria eraikitze lanak bertan behera uzteko erabaki du Azpeitiko Udalak.

Lizeoko pribatuaren aldekoek prentsauraren salatu zuten, "kontua da hementik geldiarazi dituztela hango obrak. Konponduta zegoen arazo bat orain berriaz iskanbilara eramaten du honek, eta gainera nondik, eta hangoekin zerikusirik ez duen ikastola batek". Era honetan, "txanta-

jea egin nahi digute. Azpeitiko ikastolako obrak geldiarazita Beasaingoko inpugnazioa altxatuko dugula uste dute. Hau da, Beasaingo ikastola bere osotasunean publikatu nahi dute Azpeitiko ikastolak bizi ahal izateko", gaineratu dute. Erabaki hau salatzeke, Lizeoaren aurrean konzentratu ziren zenbait guraso maiatzaren 9an.

Publikoaren aldekoek beraien aldetik, "guk Azpeitiko Ikastolako arazoaren konponbidearen inguruan eman diren zenbait irregularitasun errekurritu baldin badugu, ez da inoren irtenbide negoziatua galazteagatik, Alkartasuna Lizeoa ikastolak ere irtenbidea izanik, interes politiko ezkutuaren babesean, hiru urte luzetan ulertezinezko egoera baitan eduki gaituztelako baizik".



Arriarango ura

Arriarango urtegiko ura Arama, Alzaga, Itsasondo eta Legorretaraino eramateko hornikuntza lanak egiteko konbenioa sinatu dute Diputazioak eta Ur Kontsorzioak. Arriarango urtegiko ur sarea Ordizian bukatzen da eta bigarren fase honetan, 7 kilometrotako tuboak jarriko dituzte. 302 milioiko aurrekontua du.



Marcelino Camacho

Ordizian omenaldia egin zioten maiatzaren 15ean Marcelino Camachori. CCOOko presidentea goizean azokan ibili zen, iluntzean sindikalismoari eta enpleguari buruzko hitzaldia eskaini zuen Barrena Kultur Etxean eta ondoren afaria izan zuten Oianguen. Oroigarritzat, 'makila' eman zioten.



Joseba Jaka

Hil berria den Joseba Jakaren izena eramango du Zumarragako Eitza auzoko plaza batek. Zegamarra zen jaiotzez, baina Eitza auzoan bizi izan zen urte askoan.

Eskolarteko bertsolari txapelketa

Haritz Zeberio eta Ekaitz Goikoetxea beasaindarrak, Eskolarteko Bertsolari Txapelketako finalean izango ditugu, maiatzaren 24an. Alaitz Sarasola ordiziarra oso oso hurbil gelditu da finaletik. Hurrengoan behar ko. Zorte on besteei.

Karlistak eta liberalak

Nazioarteko Museo Eguna ospatzen dela eta, karlistak eta liberalak aurrez aurre jarriko dituen jolastoki bihurtuko da Ormaiztegi. Bi ejerzitoek, Zumalakarregi eta Espartero jeneralak burudutela, Ormaiztegiko indiano aberats batek ezkutaturi-

ko altxor baten plano bana lortu behar dute. Jeneralek, kanpamenduak zabaldu, beharrezko hornidurak eskuratu eta tropak altxor prezatuaren bila abiaraziko dituzte.

Maiatzaren 29an, arratsaldeko 4etan, trenzubien azpian kokatutako eskenategian izango da hau guztia, Zumalakarregi Museoa bertan, asteazkenero antolatzen den Zumagazte lantegiko erabiltzaileen eskutik.

ONCE: 130 milioi

Maiatzaren 9ko ONCEren zozketan Beasainen, eta batez ere Ordizian, 130 milioi pezeta inguru banatu ziren. Agusin Zurutuzak eman zuen sariaren zatirik handiena. Denbora gutxian Goierriera etorri den hirugarren saria da. Ordizian 150 bat milioi banatu zituen Josefa Rodriguezek eta Klemente Ariztimuñok Idiazabal eta Segura aldean, 130 bat milioi.



Josune Bereziartu

Beasaindar eskalatzaileak hanka onarekin hasi du Espainiako Kopa. Leioan egin zen lehen proban nagusi izan zen Josune. Urrian egingo den Munduko Kopan ahalik eta ongien egitea da aurtengo denboraldiko helburua. Kalifornia eta Koloradoko eskalada eremuetara joateko asmoa dauka udan entrenatzera. Dena den, Euskadiko Txapelketan parte hartuko du.

Egonaldiak familia euskaldunetan

Urtean zehar euskara ikasten jardun duten lagunek uda partean ikasitako hori giro euskaldunean bizitz praktikan jartzeko aukera izan dezaten, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 'Egonaldiak familia euskaldunetan' programari ekin dio aurtengo ere. Egonaldiak uztailetik irailera bitartean egingo dira, eta ikasle bakoitzaren egonaldia hilabetekoa izango da, gehienez ere. Euskara jorrazteko zein euskalkiren bat ikasteko helburuz familiaren batera joateko asmoa duten ikasle-gaiak 18tik 35 urtera bitarteko adina eta 8. urratsa gaitututa edo goragoko euskara maila izan behar dute. Ikasle bakoitzak 25.000 pezeta ordaindu behar dute dizkio bera hartuko duen familiari eta egonaldia zein lurraldetan eta zein herritan egin aukeratu ahal izango du. Beraz, ekainaren 6ra arteko epea duzue zuen Udaleko Euskara Zerbitzuan izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko.

Zumalakarregi museoa

Euskal Herriari buruzko ikerketa historikoa bultzatzeari jarraikiz, ikerlanak sustatzeko laguntza ekonomikoa eskaintzen du seigarren urtez, Zumalakarregi museoak. Ekainaren 7rako aurkeztu behar dute proiektuak museoan bertan. Laguntza 250.000 pezeta-koa izango da. 80tik 100 orrialderako luzera izan behar dute lanek eta abenduaren 12rako aurkeztu behar dute. Informazio gehiago 88 99 00 telefonozan duzue.



Itxialdian

Zaldibiako Herri eskolako gurasoak itxialdia egin zuten maiatzaren 17an Udaletxean. Helburua, herri txikiak eskola txikiak bizi daitezen, 12 urterekin herritik alde egin beharrean 14 urterekin egin dezaten eskatzea.

BIZI ESPERANTZAREN HAZKUNTZAREKIN AREAGOTZEN ARI DEN GAIXOTASUNA

Alzheimer: burua galtzea baino gogorragoa

Gaur egun Alzheimer gaixotasuna errealitatea da gure gizartean, gaixoen kopurua areagotzen ari baita, bizi esperantzaren gorakadarekin zerikusi zuzena duelako. Modu orokor batean Alzheimerra, bizi esperantzaren hazkuntzarekin, geroz eta gehiago nabarmentzen ari den dementzia da. Gaixotasun hau, sarritan, 65 urte inguruan sortzen da eta ahalmen intelektualak, eta hauen erruz, fisikoen etengabeko galera suposatzen du. Sendabiderik gabekoa da eta zahartzaroko dementzien kopuru garrantzitsua betetzen du.

Gaixotasunak bere hurbile-neko ingurunean duen zerikusia kontutan izanik, Afagi (Gipuzkoako Alzheimer gaixoen senitartekoen elkarte) aurkitzen dugu, gaixoen hauen eta aipaturiko ingurunearen egoera ahal den neurrian hobetzeko asmatan. Ordizian bertan ere eta Afagi-ren laguntzaz, Alzheimer gaixoak zaintzeko taldea sortu da. Hamabostero, asteazkenetan, arratsaldeko 3etatik 5etara Zaharren Egoitzan biltzen dira, esperientziak trukatu eta gaixotasun honi ahalik eta ondoen aurre egiteko asmoz. Informazio gehiago 88 11 65 - 88 82 50 telefonotan duzue.

Alzheimer gaixotasuna ez da bat batekoa, horregatik, askotan oso zaila izaten da zehatz-mehatz gaixotasuna zein momentutan hasi den jakitea. Alzheimerra nerbio sistema zentraleko gaitza da. Hipotesi ezberdi-

nak daude honen jatorria esplikatzen saiatzen direnen artean, dena dela, hauek ez daude baieztatutak.

Gaixotasun hau faktore askoren menpe dago eta pertsona bakoitzak era ezberdinean erantzungo dio. Bere iraupena 7-10 urtekoa izaten da gehienetan, baina gaixoa gazteagoa denean eboluzioa azkarrago ematen da.

Hiru fase

Gaixotasuna progresiboa denez, zenbait fase bereiz daitezke, beti ere, fase batean eta hurrengoaren arteko mugak ziurtasun osoz non dauden jakin gabe.

Lehenengo faseko ezaugarrien artean, gaixoareneko memoria hutsuneak, espazio eta denbora oharketan arazoak, gauzak egiteko, hiztegia galtzen hasten da, gaixoareneko pertsonalitatean aldaketak ematen dira... Fa-



Gaixotasun hau, sarritan, 65 urte inguruan sortzen da eta ahalmen intelektualak, eta hauen erruz, fisikoen etengabeko galera suposatzen du.

se honetan gaixoa senitartekoen laguntzarekin bizitza independentea eraman dezake.

Bigarren faseari dagokionez, berriz, buru ahalmen murrizketa ematen da (gaixoa duela gutxiko gauzak ahazten ditu eta ez ditu gauza berriak ulertzen), gorputzeko zatien mugikortasuna eta funtzioen zailtasuna sortzen da. Apenas esan ditzake esaldi gutxi segidan, orientazioa galtzen du eta ondorio psikotikoak, hau da, ilusioak, aluzinaketak ere eman daitezke.

Hirugarrena eta azkena den fase honetan, garunaren heriotza gertatzen da. Ezau-garrien artean: puntako agnosia, ez du ezer eta inor ulertzen; afasia, ez du hitz egiten eta ez du ezer ulertzen; apraxia, ia ez du ekint-

zarik egiten; pasibotasuna, bizitza begetala darama, "feto" itxura hartzen du gorputzak. Maila honetan heriotza urte betean ematen da.

Familia

Alzheimer gaixotasunak di-tuen ezaugarriak kontutan izanik, gaitz hau duen pertsona bat beste batekiko % 100eko dependentzia izatera helduko da.

Eboluzio guztian zehar bere familiarren maitasuna, laguntza eta segurtasuna beharko du. Diagnostikoa eza-gutzean, gaixoareneko egoera sozial eta ekonomikoa aztertuta beharko du, familiak ondorioz honen ardurak antolatuz eta planifikatuz. Zentzu honetan komenigarria izaten da aspektu legalak ere kontutan hartzea.

IBAI-ONDO




**ZURGINTZA
ALTZARIAK
P.V.C.ko LEIHOAK**

Antzizar Auzoa, z/g
880543 BEASAIN

Joakin Aldanondo BULKANIZATUAK

Gurpil lanak, alineazioak
filtroak, olioak, engraseak
frenu pastila, tubo eskape, bateriak

Errota Poligonoa (IDIAZABALgo sarreran) 80 02 57



Lehenengo fasean agertzen den arduradun nagusia, gaixoaren bizitzaz arduratzen da eta zama fisiko eta psikiko handia hartzen du bere gain, bere independentzia neurri batean galduz.

Gure kulturaren arabera, zaharra zaintzeko ardura era jerarkizatu batean doa, hau da, senar eta emaztekin hasita, alabak, seme/errainak, beste familiarrak eta azkenik zerbitzu sozialak egongo dira. Jerarkizazio honek, kasu gehienetan gaixoa emakumeengan uzten du.

Arduradun nagusiak izan ditzakeen pertubarzioen artean honako hauek agertzen dira: tristura, kezka, bakardadea, depresioa, suminkortasuna, lotsa, errua, ezintasuna, porrota, zapuzketa, gaixoaren heriotza biologikoa jasateko ezintasuna.

"Gaitz hau duen pertsona, beste batekiko, % 100-eko dependentzia izatera helduko da"

"Zama familiarra"

Oso gogorra izaten da familiarentzat gaixoaren diagnostikoa onartzea, horren aurrean askotan errebeldia azaltzen delarik, baita frustrazio sentimenduak ere. Dena dela, hau gertatu ez dadin, oso garrantzitsua da familiak gaixotasunari buruzko informazio zabala edukitzea eta egoera berrie-



Oso garrantzitsua da familiak gaixotasunari buruzko informazio zabala edukitzea eta egoera berrietara egokitzeko gaitasuna izatea.

tara egokitzeko gaitasuna izatea.

Gaixotasunaren efektu negatiboak familian, zailtasun ekonomikoak, arazoak etxebizitzan, bizitza ohituratan aldaketa, erantzukizun eta exigentzi berriak, erru sentimenduak, inseguritate

fritzen duen arazo batean aurrean.

*** Afagi:** 1991. urteko azaroan sortu zen elkarte hau, Estatu osoan eta sakabana-turik aurkitzen diren 17 elkarteetako bat da. Espainiako Alzheimer Fundazioarekin elkarlanean aritzen da.

Elkarte honen helburua, bai Alzheimer gaixoen eta bere familiaren bizitza kalitate hobetzea da. Helburu hau lortzeko eskaintzen duen laguntza ondorengo hau da: asistentzi sozialeko zentrueri buruzko informazioa eta orientazioa ematea; arazo legalei buruz informazioa; familia hezitzea helburua duten ekintza eta materiala eskaintzea, eta bolondres edo boluntario laguntza, talde laguntza.

*** Eguneko zentrua:** Gaur egun garrantzia handia duen baliabide baten aurrean aur-

kitzen gara, etengabeko instituzionalizazioari alternatiba bezala agertzen baita.

Gaixotasuna aurrera doan neurrian, gaixoa geroz eta behar eta atentzio gehiago behar ditu eta askotan arduradunari ezinezkoa egiten zaio gaixoa behar den bezala zaintzea. Eguneko zentruak eskaintzen duen aukera hau, askoz interesgarriagoa eta komenigarriagoa da, bai gaixoa erantzut, bai familiarentzat; alde batetik ez delako banaketa ematen, eta bestetik ekonomikoki ere askoz merkeagoa delako. Eguneko zentru honek babesa eskaintzen die familiari.

Zentruak duen helburu nagusia, gaixoaren ohitura batzuk mantentzea eta familiarentzat heziketa bultzatzea eta aurrera eramatea da. Egoitzak dituen helburu zehatzak hauek dira: eguneroko baliabide-ohiturak mantentzea; familiarrei laguntza eta babesa ematea; erakargarria suertatuko den egoitza lortzea; eta heziketaren inguruan funtzionatu-ko duen egoitza izatea.

*** Erresidentziak:** Baliabide honek beti izan du garrantzia, baina orain aldaketa eman da. Iraganean gaituak bakarrik onartzen ziren eta orain ezgaituak ere onartzen hasi dira.

*Maider Azurmendi
Amaia Mujika*



The Clover School of Languages

Domingo Unanue Pl., 5

16 20 16
ORDIZIA

**UDAKO IKASTARO INTENTSIBOAK
ESKEINTZEN DITUGU:**

INGELES eta FRANTSES

Egunero ordu bat edo bi ordu

1. txanda: ekainaren 24tik - uztailaren 19ra

2. txanda: abuztuaren 1etik - abuztuaren 30era

Izen emateko epea ekainaren 19rarte

Egitaraua

Maiatzak 24, ostirala:

17:30etan: Kiki, Koko eta Moko pailazoen emanaldia, Joan Iturralde plazan.

19:00etan: Beasaingo Erraldoi eta Kilikien irteera txistulariekin.

22:30etan: Kontzertua: Chocokrispis, Afraid to speak in public eta Psilicon Flesh, Txoznetan.

23:00etan: 'Paco Formoso' eta bere 'Mexi-gala' mariatxiek, Loinazko San Martin plazan.

Maiatzak 25, larunbata:

10:00etan: Txistularien Udal-bandaren goizeresi alaia.

11:00etan: Erretiratuen-tzako Toka eta Igel-lehiaketa, Zaldizurretako kaleko terrazan.

11:00etatik 13:00etara, Elkarleen arteko sukaldaritza lehiaketa, Gernika pasealekuan.

13:45ean: Sagastigutia Parke Naturalaren inaugurazio ofiziala.

14:00etan: Mozorrotuen herri-bazkaria, Sagasti-

gutia parkean.

16:00etan: Aitzo-Zorroitzek antolatutako plater tiraketa, Suministros Loinazen parkean.

16:00etan: XLVI. Loinatz Txirrindulari proba 2. mailako amateurrentzat.

16:00etan: Umeentzako Mozorrotzeko tailerra, Barrendain plazan.

17:00etan: Ume Mozorrotuen Bilkura eta Ibi-laldia, Barrendain plazan.

17:30ean: Haurrentzako txapa tailerra eta puzgarria, Joan Iturralde plazan.

18:30ean: Umeentzako dantzaldi suspertua Auskalo taldearekin, Joan Iturralde plazan.

19:00etan: Sasietak antolatutako kartel eta argazki lehiaketa eta 'berzikli' sariaren saribanaketa, Joan Iturralde plazan.

19:00etan: Txalaparta, Oria eta Iraunkorrek txar-rangak.

21:00etan: Mozorrotuen



afariak Elkarre eta jatetxeetan.

00:00etan: Txalaparta, Oria eta Iraunkorrek txar-rangen irteera eta mozorrotuen kalejira.

00:30etan: Mozorrotuen dantzaldia 'Ixo Rai!' folk taldearekin, Bideluze plazan.

Maiatzak 26, igandea:

09:00etan: Iturengo Zantzarrep esnadeia.

10:00etan: Gaztetxoen-tzako Xake-lehiaketa, Ezkiaga Auzo Etxean.

11:30etan: Gomazko pilotaz jokaturako pala-txapelketako finala, Batzokian.

13:00etan: Beasaingo Akordeoi Orkestaren kontzertua, Loinazko San Martin plazan.

17:00etan: Umeentzako eskalada arrokadromoan, Joan Iturralde plazan.

18:00etan: Txotxongilo-en emanaldia eta erakusketa. 'Bihar' taldeak "Baleak salba ditzagun" ikuskizuna eskainiko du, Joan Iturralde plazan.

18:00etan: Parapente eta paramotorren erakustaldia Usurbeko gailurretetik eta Dolareatik.

18:30etan: Herri Kirolen erakustaldi orokorra, Barrendain plazan.

19:00etan: Ostadar Euskal Dantza taldeak dantza-saioa eskainiko du, Loinazko San Martin plazan.

19:30etan: Madagaskarreko musika etnikoa 'Rakoto'ekin, Bideluze plazan.

LOPETEGI

AUTO ESKOLA

GIDABAIMEN MOTA GUZTIAK

Igartetxe, 2
Oria Kalea, 14

☎ 88 21 74
☎ 65 11 17

BEASAIN
TOLOSA

foto alzuri

ARGAZKI DENDA

Argazkien errebelatua ordu betean

Tfnoa eta faxa: 88 04 78

Nafarroa Etorbidea, 1. BEASAIN

5 litroko ontzia95
Insalus 6x 1,5 l.270

Don Simon (Beltza, Gorria,
Txuria)150
(barbakoa, p
rrila, e.a.entzat)4K. ...344



1915etik

RR

resti

HIJOS DE URTEAGA CB

Nafarroa Etorbidea, 15 BEASAIN ☎ 88 09 77

Festa zoriontsuak opa
dizkizuegu denoi!!



Eguraldia ez dugu oso lagun izan lehenengo asteburuan behintzat. Galdetu bestela gaztetxo hauei. A ze euri zaparrada bota zuena umeen danborradaren bukaera aldera. Lehenago bukatu behar izan zen.



Pelota partiduen finalak jokatu ziren larunbatean. Alebintan, Urteaga-Irazustabarrenak irabazi zioten Olaberria-Mujikari. Infantiletan, Amundarain nagusitu zitzaion Iruretari. Eta kadeteetan, Mujika-Aranburuk Aranburu-Zubeldiari irabazi zioten. (Arg.: Kepa Amundarain).



Astelehen goizean serio-serio San Martingo Baselizaraino prozesioan joan, meza entzun, marraskiloak jan, aspaldiko ezagunekin egon eta Parrokiara itzuli ziren ondoren. Argazkian, Ebaristo Mendia Beasaingo ikurriñarekin.



"A ze kuxidadea!". Lagunarteko futbito txapelketaren finalean festa hasi eta ordu txikietaraino luzatu zen. Futboleak Auskalok 5-4 irabazi zion Zumazuritzeri. Festa eta umore ona izan zen nagusi kaleetan.



Proba itzazu
"Beasaingo Martintxoak"

Nagusia, 11
 ☎ 88 82 37
BEASAIN



Giro jator eta atezina

BASAKANA

ITURRIOZ, 11
BEASAIN

BERRIZ ARANBURU

ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 88 04 53

BEASAIN

EuskOptika

- ◆ **Lentillak**
- ◆ **Firma guztietako betaurrekoak**
- ◆ **Eguzkitarako betaurrekoetan promozioa**

☎ 16 15 72

San Inazio, 6

BEASAIN

ARALARREN 20 BAT ARDI AZALDU DIRA HILDA

Otsoa ala zakur basatia?

Maiatzaren 7an hasita, ardiak eta ardi gazteak erasotuak izan dira Aralarren. 20 bat izan dira hildakoak. Astelehen gauean zaintza lanak egiten hasi ziren Diputazioko langilek foko eta errifleekin, erasotzailea zakurra edo otsoa izan ote den jakiteko asmoz. **Horixe da galdera: otsoak ala zakur basatiak dira erasotzaileak?**

Igaratza inguruan, Pagabe, Zotaleta eta bereziki Doniturrietan izan dira eraso gehien. 20 bat guztira. Ataungo artzainak daude batez ere inguru horietan eta kaltetuena Martin Aldasoro ataundar artzainaren artaldean izan da. Ardi gazteak izan dira erasotuak, ardia bakarra. Erasotzailea animalia bat edo gehienez 2 omen dira. Beti gauez egiten du 'akzioa'. Hala ere, eraso ordua aurreratzen ari da.

Zainketa lana

Erasotzailea otsoa edo zakur basatiren bat ote denaren zalantza argitzeko, maiatzaren 20an hasita, Diputazioko goardak, fokoak



Piztia Pardarri inguruko zuloren batean izkutatzen dela uste dute artzainek.

eta errifleak hartu eta gauak Aralarren pasatzen ari dira. Joan zen asteleheneko zaintza lanean ez zuten ezertxo ere ikusi. Inigo Mendiola Diputazioko ki-deak adierazi zigunez, kasualitate handia izango litzateke lehenengo egunean joan eta zerbait aurkitzea. "Azkarrak dira eta euren ingurua denez ondo baino hobeto ezagutzen dute. Hori dela eta, aurrera jarraituko dugu erasotzailea aurkitu artean", gaineratu du Mendiolak.

Beraz, ez dago ziur zein animaliak eragiten duen saraskia. Bi hipotesi posible



daude, baina bata zein beste, ez dira baieztatu, informazio hau idazterakoan behintzat. Otsoak lepoan, bizkar gainean egiten du hozka. Zakurrek bular aldean. Eraso gehienak bular aldekoak izan dira, lepoan hozk egin gabekoak.

Artzain batek bere fokoarekin ikusi zuen animalia. Begiak bakarrik ikusi zizkion, begi gorriak. Inguruko artzainek, Pardarriko zuloren batean izkutatuta egongo denaren ustea dute.

Aralarko artzainak, ordea, ia oso ziur daude erasotzailea otsoa dela. Artzain txakurrak oso izututa jartzen omen dira otsoa ikustean, ez omen dute ahorik zabaltzen, ez eta mugitu ere. Eta kasu honetan horixe gertatzen da. Gainera, otsoak ugaltzen ari dira. Horren adibide dira Urbasa aldean izaten ari diren erasoak. Hori dela eta, ez da baztertu

behar Aralarren otsoak ibiliko direnaren hipotesia. Azken 25 urteotan gainera, hazkuntza izugarria izan du ugaztun espezie honek, batez ere Burgos, Errioxa, Araba eta Bizkaian. Era honetan adituen esanetan, ez litzateke harritzekoa izango batez ere otso gazteak, Aralar ingururaino mendiz mendi iristea Orain ez bada, lehenxeago edo geroxeago otsoa itzuliko omen da gure mendietara. Artzainak ohitu egin beharko du "bisitari" berri honetara.

1920an bai

Datuen arabera, azken aldiz, 1920an izan ziren otsoak Aralarren. Orain dela 7-8 bat urte eraso batzuk izan ziren, baina Goardaetxeko zakurra izan zen erasotzailea. Zakurrak normalean eraso egin eta etxera itzultzen dira.

Artaldeari kaltea

Ardiak oso urduri omen daude, izututa. Esne produktioa jaitsi egin da artzainen esanetan. Ernaltze garaia ez dago urruti, eta erasoek jarraituz gero, umeak galtzea gerta daiteke. Artzaintzat galera handia.

Gaur egun Aralarren 20.000 bat ardik bazkatzen dute. 50 artzain daude bertan.

Jon Aizpurua - L. A.

GOIERRIKO KANPO KOOPERATIBA

Ganaduzaleek ganaduzaleentzat sortutako kooperatiba

MOTA GUZTIETAKO pentsuak, ongarriak, lantresnak

Esuskal Herria Kalea
Industrialdea

☎ 88 04 15
☎ 16 07 07

ORDIZIA
OLABERRIA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

Nagusia, 27 ☎ 882007 BEASAIN



GABIRIA

Joan zen apirilaren 23an eta Kultur Astearen barruan errezil sagarrari buruzko mahaingurua egin zen Kultur Etxean. Bileran horretan errezil sagarraren lehiaketa antolatzea erabaki zen udazken amaiera aldera eta lehiaketa herritarren artekoa izango litzateke.

Lehiaketa hori antolatze-ko arrazoiak nabariak dira, izan ere, azken urte hauetan inguruko eta ez hain inguruko herrietan egin diren lehiaketetan gabiriarrak goi-goian ibili dira, eta ondorioz, herrian bertan horrelako zerbait antolatze-ari egoki iritzi zitzaion.

Lehiaketa horretan nahi duten guztiek parte hartu ahal izango dute baina, hori bai, herritarra izan behar du

Errezil sagarraren lehiaketa udazkenerako



San Isidro: baserritarren eguna

Urteroko ohiturari jarraituz, maiatzaren 15ean herriko 30-en bat lagun elkartu ziren Korta jatetxean egun hori ahalik eta ongien ospatzeko. Janari goxoa eta eguraldi ederra izan zituztenez, makina bat kontu elkarri esan ondoren baserriko lanei ekiteko gogo gutxiz itzuli ziren euren etxeetara.

eta bakoitzak 30en bat kilo aurkeztu beharko ditu.

Egun horretako ospakizuna zertxobait borobiltze-

ko errezil lehiaketaz gain, sagarrak eta baserriko beste zenbait produktu saldu ere egingo dira, bertara hurbil-

tzen direnek erosteko gogorik badute behintzat.

Hori dela eta, irailaren azken astean beste bilera bat egingo da antolaketa-lanak aztertzen eta burutzen hasteko.

13 gazteren sendotza

Joan zen maiatzaren 12an herriko 13 gaztek hartu zuten sendotza bi urtetan prestatzen aritu ondoren. Gortzaiek etortzerik izan ez eta Imanol Aldaregia apaiza arduratu zen eginkizun horretaz.

Gazteak 16, 17 eta 18 urtekoak ziren eta denen artean kuadrila ederra osatu zuten. Ospakizunaren giroa ere benetan bikaina izan zen.

Gabino Murua

ZEGAMA

Datorren igande eta astelehenean, maiatzak 26 eta 27, ospatuko da aurten aspaldidanik datorkigun Arantzazuko Peregrinazioa. Ohi bezala igande goizean, batzuko goizeko 8etan eta besteak goizeko 10etan abiatuko dira Arantzazuruntz. Urtero bezala Udalak jarriko ditu autobusak Apeaderoraino.

Iaz bezala, bueltan igandean bertan etorri nahi duenak autobusa izango du, baina zenbat autobus jarri behar diren jakin ahal izateko beharrezkoa da Udaltxeari izena eman eta txartelak jasotzea.

Astelehen goizez ere Zegamatik Arantzazura eta bazkalondan Arantzazutik

Arantzazura erromeria



Zegamara autobusak izango dira, baina hauetarako ere izenak eman eta txartelak jaso behar dira. Bai igande eta bai asteleheneko autobusetarako lehentasuna Zegaman erroldatuek izango dute.

Salda beroa eta kafea izango da bazkaltzeko to-

kian herriko sukaldari borondatezkoei esker. Aipatu beharrezkoa da aurten Fermin Larrea, osasun arazoen gatik, gure artean ez dela izango. Janari, edari, botikin, e.a. garraiatzeko bi asto izango dira aurtengoan ere.

Astelehenean, herriko txistularien laguntzaz, Goi-

ko Bentatik Santutegiraino-ko prozesioa egingo dute herritarrek Meza Nagusia entzuteko asmoz. Bazkalondan, mendiz datozenentzako otartekoak izango dira Otzaurten.

Herrira iritsitakoan, San Bartolome Baselizaren ondoan, goxokiak banatuko dira umeentzat eta herriko txistulariek lagundurik, Ama Birjiña jaitsiko da prozesioan Parrokiraino. Ondoren helduentzat, pintxo eta ardo banaketa eta haurrentzat Kasikonoko ipuin lehiaketaren sari banaketa. Ondoren, Udal Arkupeetan afariak, Arakama trikitilari-ek lagundurik.

Eduarne Albizu

ZALDIBIA

9 neska-mutikok egin dute jaunartzea



Poz, alaitasun eta ilusioz beterik, 8 neska-mutikok egin zuten joan den igandean Lehenengo Jaunartzea Zaldibian: Iñigo Arruabarrena, Ibai eta Saioa Azurmendi, Ibai Beloki, Amaia Mendizabal, Kepa Olano, Aitor Ordozgoiti, Oihana Ormaetxea eta Maddalen San Migel.

Protagonista nagusi komunioa egindakoa umeak berak zirela, Fidel Tolosa erretorearen zuzendaritzapean eta katekista eta gurasoek lagundurik, oso eliz funtzio polita egin zuten; herri meza esango genuke.

Ohiko zorion-agur, argazki eta gaineratiko gorabeherak zuzendu ondoren, bakoitza bere familiarekin bildu zen, mahai goxoaren inguruan adiskidetasun giroan eguna igarotzera.

Urko Galarraga

Urko Galarraga Irastorza gaztea berriro ere etxean da joan den asteartez geroztik, 500.000 pezetako fiantza ordaindu eta baldintzapeko askatasunari esker, bederatzi hilabete gartzelan pasa ondoren. Etxegaraten egin zioten lehenengo ha-

rrera eta karabanan iritsi ziren handik herrira. Hitzaldi laburra eta bertso batzukekin eman zitzaion ongietorria, Urkoren aitona-amonak ere tartean zirela.

Gertakizunaren adierazgarri, pankarta asko ikus zitezkeen herrian zehar: Anministia, Jarrai, HB, eta abarrenak. Aldi berean, Iker Atxotegiren urtebetez zenez, hura ere gogoan izan zuten plazan bildutakoek, hain zuzen gartzelan gertatzen den herritar bakarra.

Abuztuaren 20an detentatu zuen Urko Guardia Zibilak, Oskarbi Jauregi eta Iker Atxotegirekin batera. Geroztik Madril eta Cacereseko garteletan egon da, tartean gose greba batean ere parte hartu duelarik.

Bestalde, joan den igandean herrian omenaldia egin zitzaion Urkori: udal ordezkari baten hitzaldia, dantzariak eta lagunarteko bazkariak osatu zuten programa.

Sukia, txapeldun

Aitzol Sukia pilotariak, Elgetako Xabier Uberarekin bikotea osaturik, Bizkaiko Matienan jokatzen den txapeldunorde

pela eskuratu du, jubenil kategorian, Varela eta Fernandez bizkaitarrei 22 eta 13 irabazi ondoren. Oso partidu ona izan zen. Bestalde, azpimarratu beharreko kontua da Sukiak egunik egun egiten ari den gorakoa.

Neskak txapeldunorde

Aldez aurreko liga irabazi ondoren, "Udaberria Saria" izeneko futbito txapelketaren finala zuen joan den igandean gure herriko nesken ekipoak Donostiako Egia auzoan, Tolosako Shanti-Ogiberri taldearen aurka. Zaldibiko neskek partidu ona jokatu eta markagailua berdintzea bi aldiz lortu bazuten ere, azkenean 4 eta 3 galdu zuten, eta bigarren postuarekin konformatu behar. Hurrengo batean beharko. Zorionak!

Herri artekoan final-aurrekoan Zaldibia

Gipuzkoako herri arteko pilota txapelketan, Zaldibia finalaurrekoetan sartu da Eibar, Idiazabal eta Berrobiri irabazi dielarik. Azpei-

tiaren aurka jokatu beharko du orain.

Elkarriren hitzaldieztabaida

Ostiralak 24, "Hirugarren gunea" gai hartuta, Joxerra Gartzia, Juan Mari Juaristi eta Patxi Zabaleta arituko dira, Zinean, 20:00etan.

Ikastaroak

Sukaldaritza eta Aerobic ikastaroak antolatu dira. Sukaldaritzako, ikastaro laburra izango da. Izena Kultur Etxean eman behar da maiatzaren 31a aurretik.

Aerobica ekaina eta uztailan egingo da. Egunak eta orduak zehazteko, maiatzaren 24an bilera egingo da iluntzeko 8etan.

Ibilaldia

Trapaga herrian ospatuko den Bizkaiko Ikastolen festara joateko autobusa antolatu du Zaldibiko Udalak. 18 urtekoek 500 pezeta ordaindu beharko dute, helduek 1.000. Izena lehenbait lehen eman Kultur Etxean.

Rufino Iraola

Dantzari Txiki Eguna

Aurreko urteetan bezalaxe, aurtan ere, Dantzari Txiki Eguna ospatuko da Zaldibian; hain zuzen, datorren igandean, maiatzak 26, izango da festa hori, hainbat herritako dantza taldeek parte hartuko dutelarik. Zaldibiko Iztueta taldea ere tartean izango da. Eguerdian hasi eta egun osoan iraungo du festak, hainbat ekitaldi, kale-jira eta dantza-saiorekin. Arratsaldeko 5etan izango da jaialdi nagusia. Talde bakoitzak bina dantza eskainiko ditu eta amaitzeko, guztiek elkarrekin, Fandango eta Arin-Arina dantzatzuko dute. Ohitura den bezala, kanpoko dantzariak herriko familietan bazkalduko dute. Lagundu nahi duenak tikea har dezake Kultura Etxean. Informazio gehiago behar izanez gero, deitu 16 03 38 telefonora.

Iztueta Dantza Taldea eta Udala dira antolatzaileak. Laguntzaileak, berriz, herriko taberna eta komertzio txikiak.

BEASAIN

Cesareo Ugarte 96ko Urrezko Barea

Cesareo beasaindarrak Beti-Bizi Kultur Elkartek ematen duen Urrezko Barea jasoko du. 92an hasi zen kultur elkarte sari hau ematen. Herriaren alde zerbait azpimarragarria egin duten talde edo pertsonentzako saria dela diote arauak. Aurtengoa Cesareo Ugarte Peñagari-kanok 85 urte dituen mediku ohia Goierrin oso eza-guna eta oso mai-tatua da.

1933an hasi zen Zegaman mediku lanean eta hurrengo urtean Beasaingo mediku izatera pasa zen. Orduz geroztik gure udalerrian lan egin zuen erretiratu zenerarte. Bere bizitzan zehar gertakizun askotan parte hartu du, beasaindar askori lagundu die, gaixo asko zaindu ditu eta ez oraingo aurrerapenekin. Balia-bide askoz ere gutxiago



Don Cesareo medikua. "Beasain Jaietan" urtekaritik hartua.

zituzten baina Cesareok ez zuen arazorik terapiarik proposena erabiltzeko.

Goizean goiz hasten zen etxez etxe gaixoak bisitatzeko, egun bakar batean hutsik egin gabe. Gerra garaian La Salle ikastetxean Gerra Komiteak antolatutako ekintzetan parte hartu zuen, kulturen, kirolen... 60.eneko hamarkadan La Salle ikastetxe berria erai-

kitzeko garaian, Ikasle Ohien Elkarteko lehendakaria izan zen eta Loinatz Abesbatzako sortzaileetako bat 70.eko hamarkadan Odol Emaileen ordezkari izan zen. Honen guztiaren ondorioz, merezitako Urrezko Barea jasotzeko aukeratu du Beti-Bizi Elkartek.

Aurreko urteetan Segundo Dorronsoro bikario ohiak, Karlos Argiñano sukaldariak, Jose Martinez enpresa gizonak eta CAF lantegiak jaso zuten Urrezko Barea.

100 urte

Valladolideko herri batean jaio zen Asuncion Giralda

orain dela 100 urte. Gaztea zenean Irungo poxpolo fabrikara etorri, 20.eko hamarkadan Justo Arnazekin ezkondu eta orain bere 100. urteurrenean omendua izanda. Beasaingo Udaletxeko plaka bat eta Diputazioko beste bat jaso ditu, Jon Jau-regi alkatearen eskutik.

UEU-rako subentzioak

Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako udako euskarazko ikastaroen berri jakin nahi duen edonork, Udaletxeko Harrera zerbitzuan aurki dezake informazioa edota zehatzagoa nahi izanez gero, Udaleko Euskara Zerbitzuan 88 75 12 telefonora deituta. Udalak ikastaro horietarako dirulaguntzak ematen ditu. Laguntza horiek jasotzeko, lehenik UEUKo ikastaroetan matrikulatu behar da eta ondoren, uztailaren 12ra bitartean eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, horretarako dauden inprimakiak beteta.

Izaskun Salazar



JOXEPANE

HERRI OSTATUA

- ★ Taberna
- ★ Jatetxea

☎ 88 20 47
Albisu Etxea

ZALDIBIA

NAZABAL ERRETEGIA

Otordu goxoak janez
lagunarteko giroa

Lurdes-enea ☎ 88 71 46 ZALDIBIA



☎ 16 13 59
88 4798

Urtesabel Auzoa
ZALDIBIA

Erakusketa
Sukaldeko tresnak



Mariaratz, 4

Tfnoa.: 88 86 84

BEASAIN

Bazkari eta afariak txotxeko
sagardoarekin egunero

Edozein egunetan, menu bereziak
prestatzen dira enkargatuz gero:
bataio, bazkari...

IDIAZABAL

Ekainaren 2an, Korpus aurreko igandean, egingo da aurten ere San Adriango erromeria. Urteroko moduan goizeko 7etan abiatuko dira autobusak Otzaurtera eta handik gorako bidea oinez egingo da. Autobusean joan nahi dutenek Udaltxean eman beharko dute izena aldeztu aurretik jakinaraziko diren egunetan. Arratsaldean, ohiturari eutsiz aurten ere ardo partiketa egingo da plazan eta mahaiak jarrita egongo dira bertan afaldu nahi duenarentzat.

Urtero berritzen den tradizio honek XVIII. mendean du jatorria. Garai hartan erromeriak arrazoi bikoitza zuen: Idiazabalek Partzone-rian duen partehartzeari eustea bata eta erlijio kutsukoa bestea. Hasi zenetik ordea gauzak asko aldatu dira. Garai batean bide guztia oi-



Arg.: Joxe Mari Telleria

nez egiten zuten eta guztiek ez zuten joateko modurik izaten, izan ere 1965. urterarte emakumeek ezin bait zuten erromerian parte hartu. 1966ko maiatzaren 25ean egindako udalbatza edo plenoan erabaki zuten galerazpen hori kentzea.

Herri jaia izan arren, Zegamak eta Segurak ere parte hartzen dute erromeria honetan, izan ere San Adriandik buelta bi herri

hauetatik barrena egiten baita.

Logotipoak aukeratuta

Kultur astean erakusgai egon ondoren, eta herritarrek emandako botoen arabera, Nekane Aranburuk egindako logotipoak aukeratu dira Kiroldegirako eta Herri Eskolarako.

Kiroldegiko berriak

Arranoaitz taldeak irabazi

du nesken arteko boleibol txapelketa. Bigarrena Matrakak taldea izan da. Boleibol txapelketa otsailean hasi zen jokatzeko, eta hilabete hauetan herriko 35 neska aritu dira jokatzeko lau taldeetan banatuta. Aipatutako bi taldeekin batera Ikizenak eta 82ko kinta taldea aritu dira lehian.

Boleibol txapelketa bukatu den arren, Kiroldegian ez daude begira egoteko eta uda parterako neskontzat beisbol ikastaroa antolatu behar dute.

Kiroldegian aritzen den beste talde batek ere sortu du notizia. Jubenil mailako nesken futbol taldea Gipuzkoako kopako finalerdietara iritsi zen. Donostiako Barandiaran Lizeoaren aurka jokatu zuten partidua eta herritarrek 3-1 galdu zuten.

Xabier Urteaga

ORMAIZTEGI

15 gazte izan ziren, euren borondatez, maiatzaren 5ean Ander Deunaren elizan Sendotzako Sakramentua hartu zutenak. Hala adierazi zuten behintzat, Donostiako Gotzain orde Imanol Aldalegiaren aurrean.

7 mutil eta 8 neska izan ziren elizkizun horretan partaide: Aitor Azpiazu, Joseba Barrenetxea, Edurne Blanco, Unai Iraeta, Izar Oiarzabal, Nekane Zufiaurre, Jon Urteaga, Iakobe Katarain, Oier Arzelus, Goiatz Arana, Aloña Aranburu, Itziar Kuadrado, Iker



Sendotza hartu zuten 15 gazteak.

Iztueta, Izaskun Rodriguez eta Alizia Diez.

Notarioaren zerbitzua

Herritar guztien ezaguera-rako jakinarazten da, aurre-

rantzean asteazkenetan Udaltxe honetan izango dela Pedro Elozegi Bergaretxe, Segurako Notario Jauna, eguerdiko 12.00etatik ordu biak artean.

15 gaztek hartu dute sendotza

Pirineoetara irteera

Ormaiztegiko Kirol Elkar-tereko mendi sailak, mendi irteera antolatu du Gabarnira, Taillon mendira igotzeko asmoarekin. Irteera bi egunekoa izango da, uztailaren 6tik 7ra. Prezioa, Gabarniko aterpea 120 franko eta autobusa 3.000 pezeta. Izenemateko orduan ordaindu beharko da aterpearen dirua (frankotan). Plazak mugatuak izango dira. Lehenengo izena ematen dutenek, joateko lehentasuna izango dutelarik.

Aitziber Murua

ATAUN

Txapeldun asko eskolan...



"Non edo han, egindakoa beti azaltzen da". Hori dio esaera zaharrak eta Eskolan ez daude egin faltaz. Gipuzkoako 3 txapelketa irabazi dituzte.



Tenisean, Beatriz Barriolak jantzi zuen infantil neska mailako txapelketa. Disoko jaurtiketan, Eider Goikoetxeak irabazi zuen kadete neska mailan. Areto-futbole, berriz, infantil mailan, 'kanpeoi' atera da Eskolako taldea. Azkoitiako Xabier Muñibe Ikastolari 4-3 irabazi zion.

Orain Euskadiko Jokoe-tan parte hartuko du futbol taldeak, ekainaren 1ean eta 8an Gasteizen. Nafarroa, Araba eta Bizkaiko txapel-

dunak izango ditu aurrean.

Txapeldunetz aparte, neska-mutiko mordoxka izan da txapelatik gertu. Zorionak guztiei!

... Baina gero ere bai?

Lan ikaragarria egiten da Eskolan, kirol arloan. Pako Urrestarazuren esanetara, batz bestea, 6 kirol desberdin egiten dituzte eskolaurrek eskola-orduetatik kanpora. Orain ordea, Eskola Mapa berria, ESO delakoaren ondorioz, eta herritik aldegin beharko duten haurren "kirol extra-eskolarra" ez dago oraindik erabakita Ataunen bertan egin ahal izango duten. Ezinezkoa balitz, puska ederra galduko luke orainarteko lanak. Eskolako Zuzendaritza bereak eta bi ari da egiten, Beasaina joan beharko dutenen kirol extra-eskolarra herrian gera dadin.

Otsoak?

Aidean dabilta artzainak. Ez da argitu oraindik otsoa ala zakurra, zer arraio dabilen artaldeetan kalteak egiten. Herriko artzain den Martin Aldasorori egin dio gainera kalte gehien. Ikus 16. orrian.

Heriotza

Jose Kruz Barandiaran Zurutzu. Elbarreneko 'Barandiaran Txiki' baserrikoa. Praile Sakramentinoa. Aurreko astean hil zen Chicagon, Estatu Batuetan, 68 urte zituela. 1951n eman zuen lehen Meza San Martingo Elizan eta Chicagon egin ditu azken 34 urteak. Batez ere, 'chicano' edo 'hispano' jende artean egin du lan, Mejiko, Puerto Rico eta abarretatik iritsitako jende xumearekin. Bere nahia betez, hemen emango diote lur. Atsekabeen lagun familia-koak.

Jubilatuek txango

Ez daude etxean egoteko! San Antoniora joango dira, garagarriaren 13an. Joan nahi duzuenok hilaren 8rako eman izena. Nori? San Martinen Atsedentokin. San Gregorion 'Iturriozko' Jexuxi. Ergoienan 'Gariarte-Azpiko' Jenobebari eta Aian, 'Ibondoko' Martini. Gosaria, norberak eraman.

Bazkaria Beranterillan izango da. Jubilatuek Elkarte-ko bazkideek 2.500 pezeta eta bazkide ez direnek 3.300 pezeta.

Herri langile: Mikel Barandiaran 'Zaindi Berrikoak' hartu du herrian hutsik zegoen lanpostua. Bigarren geratu zen oposiziotan eta 'interinitatez' arituko da lanean.

Pilotariak erruz: Festa giroan jokatu ziren Pilota txapelketaren finalak. Lan bikaina Joxan Unsain, Justo Dorronsoro eta abarrek egiten duten lana. Gure artean izan genituen Inaxio Errandonea eta Oskar Lasa. Bejondeizuela!

Argazki lehiaketa: Herria postal bidez promozionatzeko, udalak antolatua. Abenduaren 1erako aurkezteko behar dira argazkiak. Neurria 18 x 24 zm. Sariak: 60.000 pezeta, 25.000 peze-ta eta 15.000 pezeta.

Jon Aizpurua



Zintzo ari dira San Gregorion Pako Urrestarazuren esanetara, hezurak eta gerriak biguntzen. Olatz, Ramona, Juanita, Miren, Klarita, Anttoni, Rosario, Txarito, Blankita, Maribi, M. Jexus, Margari, Ana Mari, Arantxa, M. Karmen, Fermi-na, Maribel eta Lurdes.

ORDIZIA

Dantzari txikien bilgune ekainaren 2an

Ordiziako Dantzari Txiki egunak 12. edizioa beteko du aurten. Ekainaren 2an izango da ospakizuna. Berrikuntzekin dator gainera. Batetik, herritik auzoetara zabalduko dute dantza ikuskizuna. Goizeko 11etan hasita, auzo ezberdinetan, bina dantza talde arituko dira dantzak eskaintzen. Eguerdiko 12.30etan alardea izango da guztiek elkarrekin, Joxemiel Barandiaran plazan. Talde bakoitzak dantza bana eskainiko du eta ondoren, 4 dantza eskainiko dituzte: guztiek elkarrekin Ikurrin dantza, Fandangoa eta Arin-arina dantzatuko dute; mutilek Belauntzingoa eta neskek Zinta dantza.

Bestetik, orain artean bazkaltzera etxeetara edo elkarteetara joaten baziren ere, aurten, guztiak elkarrekin, herriko pilotalekuan izango dute tripa betetzeko aukera. 500 bat lagun elkartuko dira. Ondoren, 5etatik 7etara, dantzaldia izango dute Enparantza Nagusian. Bazkaria eta dantzaldi gastuak ordaintzeko, komertzio, taberna, elkarte eta zenbait erakunderen laguntza izan dute Jakintza Dantza Taldeko antolatzaileek. Guztiei eskerrikeri beroena bidali nahi die lerro hauetatik.



Ordiziako Jakintza dantza taldeko txikienak Oreretan izan ziren Dantzari Txiki Egunean. Honelako egunek, elkar ezagutzeko eta harremanak sendotzeko balio izaten dute.

Kimetz literatur lehiaketa

Kimetz Emakumeen Elkar-teak banatu berri ditu literatura lehiaketako sariak. Juan Mari Zunzunegi euskarazko sailean, Carlos Rodriguez gaztelarazkoan eta Ana Isabel Diez izan ziren garaileak eta bakoitzak 30.000 pezetako diru zorroa jaso zuen. Euskeraz aurkeztutako lanak 25 izan ziren eta azkenik Zunzunegiren "iluntasunean errores" izan zen epailegoaren iritziz idazlanik borobilena. Rodriguezek "fruta prohibida" lana aurkeztu eta gailendu zen. Emakumeari zuzendutako sari berezia, berriz, Diez-ek jaso zuen.

Orohar, epaimahaia osatzen zutenentzat maila polita erakutsi zuten eskuartearen

izan zituzten obrek eta nahiz eta irabazleak kanpotarrak izan ordiziarren presentzia eta itxurazko lana azpimarratu zituzten.

Aipatu aurtengoa Kimetzek antolatutako bigarren literatura-lehiaketa izan dela eta berrikuntza moduan sariak izan diren lanak Ordiziako festetako liburuan argitaratuko direla.

Koadrilen eguna

Herriko festak hurbiltzen ari zaizkigula eta, zera gogorazi nahi diegu koadrilla ezberdinei, jada bilerak hasita daudela eta beraz adi egoteko hain egun sonatuan irten gabe geratu nahi ez baduzue behintzat. Urtetik-urtera geroz eta kuadrilla gehiago irtetzen direla eta, ea aurten gauza bera gertatzen den.

Aitor Calvillo

Poltsikoko ikuskizunak

Ostiralean, maiatzak 24, eta ekainaren 1ean izango dira ikusgai Poltsikoko ikuskizunak programako 3. eta 4. saioak. Beti bezala, Barrenan, 22:30ean, 400 pezetaren truke.

Ostiralean, Angel y Mariano taldeak "Canciones animadas" kafe antzerkia-kontzertua eskainiko du. 1995ean jaio zen talde hau. Beraien eginkizuna ondo ikasita, ikuskizun berri hau sortu zuten, bi pertsonaia ikaragarri sortuz: bergizarteratze prozesuan dagoen opera-abeslaria eta eskuzabala den musikari serio bat. Bi pertsonaia hauek nahastean, egoera komiko ugari sortzen dira, mota guztietako musika-gaiak ezin hobeto joz; hasi opera harrietatik, kanta espainiarra, jazz, rocka edo soul musika.

Ekainaren 1ean, Czyewski Canal jazz bikotearen txanda izango da. Tomas Czyewskiren bibolina eta Jose Luis Canalen teklaturak osatzen dute bikote interesgarri hau. Bibolinaren soinu aukerak teklaturarekin nahasteak eta jotzeko aukeratu dituzten gaiak, berezitasun handia ematen diote bibolin akustiko eta teklaturen bikote honi.



- Mediku akupuntorea
- Pisuaren kontrola
- Estetiziena

Santa Maria, 8 ☎ 88 12 11
ORDIZIA



ARANDIA
Garajea

AUTOEN KONPONKETA

N-1, z/g
☎ 88 09 47

Iurre Auzoa
OLABERRIA

SEGURA

Futboleko bi talde mailaz igo

Errejonalei 4 eta infantilei 3 partidu falta zitzaizkiela lortu zuten mailaz igotzea. 1go rejonalean eta infantilen ohorezko mailan jokatuko dute datorren denboraldian. Infantilek liga bukatu dute eta 2. geratu dira. Gainerako-ei jardunaldi bat gertatzen zaie; rejonalak 2. daude, jubenilak ere bai, bere ohorezko mailara igotzeko aukerarekin, eta kadeteak sailkapenaren erditik gora. Guzti hau dela eta, oraindik zehaztu gabe dagoen omenaldi bat egiteko asmoa da.

*Asteburuko emaitzak:

Infantilak: Añorga 2 - 2 Aizkorri. **Kadeteak:** Billabona 0 - 5 Aizkorri. **Jubenilak:** Gazteak 0 - 4 Segura.

Rejonalak: Segura 1 - 2 Hernani.

*Asteburuan:

Kadeteak: Aizkorri - Kostkas. Zapatuan, 25ean, goizeko 11etan. **Jubenilak:** Amara Berri - Segura. **Rejonalak:** Baskonia - Segura.

Gipuzkoako txapelkunak

*Atletismoa:

Maiatzaren 11n, Tolosan, Berazubín izandako Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako finalean, alebin mailan eta 60 metroan, bi urrezko domina



Momentuz igo diren 2 taldeak: rejonalak eta infantilak

lortu zituzten herritarrek. Nesketan, Garbiñe Etchezarretak 8" 9 denboraz eta mutiletan Iker Agirrezabalek 8" 3 denboraz. Gainera, Garbiñek 2.000 metroan brontzezko domina lortu zuen eta Iker 4. sailkatu zen luzera-jauzian.

*Pelota:

Alebin mailako Iker Agirrezabalek eta Garikoitz Oiarbidek, Goierriko Eskolarteko txapelkunak, ordurarteko partidu guztiak irabazita, hau idaztean, oraindik jokatu gabe zuten Gipuzkoako Eskolarteko finala.

*Tenisa:

Maiatzaren 18an, Donostiako belodromoan jokaturako Eskolarteko Gipuzkoako txapelketako taldekako tenis finalean, Isabel Ariasek, Eider Etxeberriak, Ermiñe Larrartek eta Ainitze Tejadosek zilarrezko domina lortu zuten alebin mailan. Bestalde, infantiletan final

aurrekoetarako sailkatua zen Aloña Garmendia, gaiso zegoela eta, ez zuen parte hartu eta Gipuzkoako 4. sailkatu zen.

Aratzera irteera

Santa Barbarako eguna zela eta, berriro atzeratu zen Laiotz Herri Eskolako Aratzera irteera. Oraingoan, maiatzaren 26an, goizeko 9:00etan irtingo dira plazatik.

Odol-emaleen oharra

Apirilaren 13an egin zen urteko lehenengo odol-ateratzea.

Gainerako biak abuztuan eta abenduan izango dira. Azken honetan, guztira 43 odol-ateratze egin ziren, horietatik 3 emale berriak. Biztanle kopuruari dagokionez proportzio ona da, eta gainera gazteen gorakako joera nabari da. Bestalde, herriko zenbait tabernak, dendak eta harategik emandako jan-edanei esker, pintxo batzuk ematen zaizkie odol-emaleei.

Euliak uxatu nahirik

Azkenaldian, herrian eta inguruetan jasaten ari garen euli-izurria dela eta, zenbait herritarren ekimenez, firma-bilketari ekin zaio. Asmoa, Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritza presionatzea da, honek, arazoaren sorrera ikertu eta konponbidea aurki dezan. Aurrez ere, Udaletxearen ekimenez, 94ko uztailan ikuskapena egin ondoren, txosten bat osatu zuten Osasun Sailekoek gai honen inguruan. Sinadura orriak, herriko denda eta tabernetan aurki daitezke.

Bertso afaria Txoritegin

Goierriko, Tolosaldeko eta Urretxuko bertso eskolek antolatuta, II. afalosteko bertso saioen barne, maiatzaren 24an, 20:30ean, bertso afaria izango da Txoritegi Elkarte-an. Bertan, Bixente Gorostidi amezketarra, Nerea Elustondo legazpiarra eta Ekaitz Gokoetxea beasaindarra arituko dira.

Txangoak

Garai aproposa izan da uda aurrea eskursioak egiteko. Txistukoak maiatzaren 18an egin zuten berea Biasterira. Herri Eskolako 5, 6 eta 7. mailakoak, maiatzaren 22an irtenda 3 egun pasako dituzte Zarauzko aterpetxean. Dotriñakoak, ekainaren 1ean irtingo dira Erriberri aldera. 60 urtetik gorako 30en bat herritar, berriaz, Kutxak antolatutako bidaian, Santander aldera joango dira maiatzaren 30ean.

Trinidad Kofradia

Ekainaren 2an, Trinidad egunez, San Joserenaren modura, 1991tik Trinitadearen kofradiako arduradun diren Joakina Alustiza, Axun Gereñu eta Arantxa Aburuza, ospitalpeko mahaian egongo dira, egun horretako mezen aurretik eta ondoren, ermandadekoei urteroko kobraketa egin eta kofrade berriak egiteko. Sarrera adinaren arabera izanda, pertsonako eta urteko 10 pezeta ordaindu behar da. Ordainetan, kofrade-kidea hiltzean, ermandadekoei meza aterako diote. Gaur, 1.098 kide daude bertan. 1961ean, 8 urtez funtzionatu gabe egon ondoren, Domingo Guardik eta Rafael Izagirrek hartu zuten kofradia honen ardura, eta gero, 1991arte Milagros Elorzak.

Joseba Telleria



Gipuzkoako Eskolarteko Txapelketan dominak lortu dituztenak

LAZKAO

Gipuzkoako txapeldun koskol biltzen



San Prudentzio Ikastetxe Publikoko haurrak Gipuzkoako Eskolarteko Herri Kirol Txapelketan izan ziren. Maiatzaren 11n Azpeitian ospatu zen lehiaketan 3 talde finale-ra iritsi ziren koskol biltzen: 2 alebin mutilena eta alebin nesken talde bat. Mutilen talde bat txapeldun geratu zen eta bestea hiru-garren. Neskak, berriz, bigarren sailkatu ziren.

Argazkian azaltzen dira kirolari gazte hauek: Santiago Izquierdo, Eneko Zudaire, Igor Blanco, Aitor Isidro, Jesus Fernandez, Ruben Ramajo, Tania Anton eta Gema Sanz. Txapeldunak domina erakutsiaz dau-denak dira.

Joxe "aguazille" eta Anttonik urrezko ezteiak

1946ko maiatzaren 16an, ostegunez, esan zuten jendeaurrean Lazkao-mendiko Maitz Haundiko Joxe Madariagak eta Zaldibiko Natxalago Anttoni Irastortzak elkar maite zutela.

Garaian famili behartsuetan ohizkoa zenez, komeriak egin omen zizuten eztaietan: gonbidatuak oinez ibili ziren batetik bestera, bezperan egindako euria zela eta, oinetako eta zangoak lokaztuta... Ezkon bidaia Donostiara: trenegun ostegunean bertan afaltzerako joan eta igande arratsalderako berriz etxera. Famili ederra hazi, zazpi hankagorri! eta 50 urte elkarrekin pasa dituzte dagoeneko. Gorriak eta beltzak, denetik ikusi dute.

Osasuna lagun, zorionean, beste urte asko egin itzazue gure artean Joxe "aguazille" eta Anttoni.



LEGORRETA

Bukatu dira festak

Giro onean ospatu ziren herriko jaiak. Euriak bisita egin bazuen ere, umoreak hortxe jarraitu zuen. Udaletxeko balkoian eserita egon zen Gizon Pikuak ez zuen gu-txi ikusi. Soinujole gazteak, urduritasunez, pieza behin eta berriro jotzen hasi behar, ezin segi. Dantzarien abildadeak. Zikiroaren usaina. Play backaren arrakasta. Mozorro originalak. Koadrilen ibilerak. Mozkorrak. Gau pasariak. Paellarekin makina bat inbidia ere pasatu zuen Gauza on guztiak bukaera duenez, datozen urterarte sutan erre zuten "gixajoa".



Beasaingo aktoreen eskutik, Shakespearearen 'Uderdi gau bateko ametsa'

Beasaingo Udal Antzerki tailerrak William Shakespearearen 'Uderdi gau bateko ametsa' antzezlan eskainiko du, maiatzaren 31n, Usurbe Antzokian. Rosa Rojoren zuzendaritzapean 3 urte daramazki aktore sena duten herriko gazteak hezitzen.

Shakespearearen 'Uderdi gau bateko ametsa' antzezlan eskainiko dute. Euskaraz. Nahiz eta zenbait aktorek euskararik ez jakin, ederki ikasi omen dute gidoia. Otsailetik ari dira jo eta ke gidoia ikasi eta obra prestatzen. Azken egunotan, urduritasuna ari da nagusitzen piskanaka. Dena den, ilusiorik ez zaie falta.

Gazteentzat aproposa

Komedia, umorezko antzezlan da. Ondo pasatzeko modukoa. Rosa Rojo zuzendariaren esanetan, "niri asko gustatzen zait obra hau eta gainera gazterientzat oso aproposa da.



Tailerra Beasaingo gazteek osatzen dute. Eli Salsamendi, Amaia Garrido, Gorka Egia, Gorka Zubeldia, Larraitx Idarreta, Koldo Asurmendi, Nora Imaz, Eider Mujika, Egoitze Lasa, Leire De la Calle, M. Angel Cordero, Nagore Mendoza, Ana Barrero eta Izaskun Albisu. Zuzendaria, Rosa Rojo da. Beheko lerroan, ezkerretik hasita, bigarrena dagoena.

Gaurkotu egin dugu Shakespearearen obra. 3 mundu oso ondo aurkezten dira: komikoen mundua; arauak betetzen dituen bikoteen mundua, ezarritako ordena errespetatzen dutena; eta gaueko mundua eta pertsonaiak. Shakespearearen maitagarriak, iratxoak ... jartzen zituen. Guk gaurkotu egin dugu eta gaur egun gauez dauden tribu urbanoak jarri ditugu. Hauek piska bat, ezarritako ordena jarraitzen duten bikoteen aurka-koak dira. Bi munduen txokea da".

Jende gazteak osatzen du taldea eta antzezlan hau

ikustera jende gaztea joatea gustatuko litzaieke. Horregatik gaurkotu dute obra. "Gutxiago kostatzen zaie identifikatzea, gaur egungo gauzeekin. Gaueko pertsonaiak, raperoak, heviaiak..., dira besteak, pijo-pijoak, komikoen mundua oso exageratua da, clownsak..."

Dena den, adi adi egotea eskatzen du antzezlanak. Egoitze Lasa aktoreetarik batak aitortu digunez, "korapilatsua da, kulebroi motza. Ekitaldian pista guztiak, esaldirik laburrena, ondo jaso behar ditu ikusleak. Ulertuz gero, jendeak oso ondo pasatuko du".

Antzerki tailerra

3 urte daramazki taldeak. 15-26 urte bitarteko 14 gaztek osatzen dute. Larunbatetan izaten dituzte entseiuak, goizeko 10etatik aurrera. Hiru ataletan banatu dute aurtengo tailerra. Lehenengo zatian zangoluzeeetan ibiltzen ikasi zuten. Erregeen desfilean atera ziren. Gero ariketak, gorputz espresioa, ahots ariketak... landu zituzten. Otsailetik hona ari dira obra hau entsaian.

Batzuk hobby bezala eta beste batzuk arte dramatikoan munduan buru-belarri sartzeko asmoarekin ari dira. Entrenitzeko aukera, eta aldi berean, orientatzeko, informatzeko aukera ematen du Antzerki tailerra.

Ia 4 hilabeteko lanaren emaitza, esan bezala, maiatzaren 31n ikusteko aukera izango da. Iluntzeko 8.30etan, Usurbe Antzokian, 300 pezetaren truke. Ordu bete inguruko iraupea izango du.

L.A.



ondoeta

HALTZAIRUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Nagusia, z/g.

Tfnoa.: 883102. Faxa: 88 0872

ITSASONDO



Eli Torres, Ruth Carrillo eta Gerardo Feijoo.

Arg.: Marin

Ordiziako eskubaloitik elitera

Ordizia Eskubaloi Taldeko hiru jokalarik goi mailako eskubaloirako saltoa eman dute. Eli Torres, Ruth Carrillo eta Gerardo Feijoo dira hau lortu dutenak. Hirurak ere kadetetako 2. urtean aritu dira aurren, beraz, 15 urte dituzte. Bi neskak Donostiako Bidebieta Corteblando taldera doaz eta Gerardo, berriz, Irungo Elgorriaga Bidasoara.

Datorren denboraldian jubentail mailan jokatu dute. Elik ezker hegalean du bere postua eta Ruth pibotea da. Hiru urteko kontratua dute eta talde berriaren esku daude estantzi, ikasketa eta entrenamendu gastuak. Lehen urtea batez ere ikasten pasako dute. Aurrerago, espero dena ematen badute, talde nagusira pasa ahal izateko.

Gerardo Feijook ezker hegalean jokatzen du. Mutil handia da bera, 1'92-ko altuera bait du. Azken denboraldian bere kategoriko golegile nagusia izan da Gipuzkoa mailan. 200 gol

baino gehiago sartu ditu ordiziarrak. Golak sartzeko erretasun hau dela eta jarri dituzte begiak bere gain Bidasoako teknikoek.

Zoriontsu daude hiru jokalariek lortu dutenarekin. Baina, duten ardura handia da eta badakite gogor lan egin beharko dutela, eskubaloia munduan aurrera egin ahal izateko. Adibidez, Gerardok Zumarragan ikasten jarraituko du eta aste 4 egunetan Iruneraino joan beharko da entrenatzera.

Hain harrobi ona den Ordizia E. T.-k 4 talde ditu: seniorra, jubentaila eta bi kadete (bat nesketan eta beste mutilena). Datorren urtean, berriz, nesken jubentail taldea sortzeko asmoa dute. Alde egin duten jokalariek ordezkatu, eta taldeak indartzeko jokalariek berrien beharra dute. Honegatik, Ordizia E. T.-koek gazteak animatu nahi dituzte kirol hau ezagutu eta taldean jokatzen.

Txirrindularitza

Jokin Mujika

Itsasondoan txirrindulari ezaguna aurtengo Joko Olinpikoetara joango da. Orain arte, errepideko probetan eta ziklo krosean hainbat mundialetan parte hartu badu ere, oraingoan, mendiko bizikletarekin lehiatuko da. Roberto Lezaun nafarra eta Jokin izango dira Espainiako selekzioarekin Atlantako mountain-bike laisterketan.



Javier Palacin


Beasaindarrari Euskadi taldeak baja eman dio. Denboraldia hasi zenetik, bere egoera fisikoa ez da egokia izan eta laisterketa bakarrik bukatu du. Entrenamendu eta kontzentrazioetara ere ez dela azaldu adierazi du taldeak. Txirrindulariak, arazo pertsonalak izan dituela eta bere errua onartu ondoren, beste aukera bat eskatu du.



Arg.: Dioni

Emilio Sanchez

Lazkaotarrak Espainiako gutxitu fisiko txirrindulari txapelketa irabazi berri du. Errepidean, erloju kontra eta pistako probetan parte hartu zuen. Lehenengoan txapeldun geratu zen eta bigarrenengoan txapeldunorde. Lehenengo aldiz parte hartu zuen txapelketa honetan, aldaka edo kaderako desgastea dela eta, dago erren Emilio.



Arg.: Igor Sarriegi

OTEÑE ERRETEGIA

Bazkari, afari eta edozein ospakizun
ingurune paregabe

Larraitz bidea



GAINTZA

☎ 88 98 48

KEMEN KIROLAK

Zumalakarregi, 1

☎ 88 51 68

ORMAIZTEGI



1977ko Beasaingo 2. kuadrila eguna

1977ko Loinatzetan, kuadrila egunean (2. aldia zen kuadrila eguna ospatzen zela), Manolonean bazkaldu aurretik, Zegamako elizaren aurrean ateratako argazkia da. Baleriano Nieto zen argazkilaria. Kuadrilakideak hauek:

Goiko lerroan: Patxi Etxeberria, Iñaki Urteaga, Juan Antonio Lozano, Juan Alvarez eta Antonio Somoza.

Beheran: Alfredo Igartua, Luis Gomez, Patxi Goikoetxea, Pedro Corredor, Ramon Vazquez eta Juan Karlos Lorente.

GOIERRITARRA



88 96 12



MUJIKA

Jatetxea

- Menuak kartan
- Ezkontza eta janaldietan berezituak
☎ 80 15 07 - 80 16 99
Liernia Auzoa MUTILOA

Matrikula epea zabalik **BBB-UBI**ko ikasketetarako

- Hezkuntz proiektu integrala.
- Unibertsitaterako prestakuntza bikaina. Kontrastaturiko emaitzak.
- Ikasleari laguntzeko orientabide zerbitzu pertsonala, akademikoa, profesionala.
- Estatu Batuak eta Ingalaterrako zenbait ikastetxerekiko lankidetz hitzarmenak. Ikasle-trukeak.



Alkartasuna Lizeoa

BEASAINGO IKASTOLA

☎ 88 26 84



MUJIKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 88 11 94
ORDIZIA

AFRAID TO SPEAK IN PUBLIC

CH  **CRISPIS**

PSILICON FLESH

BEASAINEN
txoznetan

KONTZERTUA

maiatzak 24 ostirala

gaueko 10:30etan

BIDEO EMANALDIA

maiatzak 25 larunbata

24:00etatik aurrera



**Gazteok batera
GAZTETXEA helburu!!**

BABESLEA: BEASAINGO UDALA